

**Hizkuntza irakasteko eta interakzioak
sortzeko estrategia didaktikoak Gorputz
Hezkuntzako irakaslearen ikuspuntutik**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Yugueros Ostio, Gaizka

ZUZENDARIA: Reguero Ugarte, Urtzi

2020

Esadazu eta ahaztu egingo dut;
Erakutsidazu eta gogoratu egingo dut;
baina utzidazu parte hartzen eta ikasiko dut.
(Benjamín Franklin)

Laburpena

Lan honen helburua gorputz hezkuntzako irakasleei ikasleekin hizkuntza interakzioak sortzeko estrategia didaktikoaz baliatzeko proposamena egitea da. Ikasgai honek gizartean duen garrantzia azpimarratzeko inkesta bat pasa zen eta galdetegiko emaitzak eta ondorioak irudikatu dira. Ikasleen garapen integrala bilatuz kalitatezko hezkuntza deituriko paradigman oinarrituta dago. Metodologia honetan ekintza motorraren bitartez hizkuntzaren trataerari garrantzia eman zaio elebitasun gehitzailea sortzeko eta bigarren hizkuntzaren jabekuntza prozesua egokia izateko.

Hitz gakoak: *Gorputz Hezkuntza, ekintza motorreko domeinuak, kalitatezko hezkuntza, hizkuntzaren trataera, hizkuntzaren jabekuntza, elebitasuna, elebitasun gehitzailea*

Resumen

El objetivo de este trabajo se basa en una propuesta didáctica en la que el profesor de educación física busque interacciones entre los alumnos. Para ver la importancia de esta asignatura se ha pasado una encuesta en la que las respuestas se ven reflejadas en el trabajo. Se busca el desarrollo integral del alumnado basándose en el paradigma de educación de calidad. En esta metodología a través de la acción motriz se le da su importancia al tratamiento de la lengua para crear lo que llamamos bilingüismo positivo y para que el proceso de adquisición del segundo lenguaje sea adecuado.

Palabras clave: *Educación física, dominios de acción motriz, educación de calidad, tratamiento del lenguaje, adquisición del lenguaje, bilingüismo, bilingüismo positivo*

Abstract

The main aim of this work is to offer a didactic proposal to the physical education teacher in order to create interactions between students. To observe the importance of this subject, a survey has been carried out in which the responses are reflected in the work. This essay wants to look for the integral development of the student, based on the paradigm of quality education. In this methodology, through motor action, the treatment of the language is given importance in order to create what we call positive bilingualism and so that the process of acquiring the second language is adequate.

Keywords: *Physical education, domains of motor action, quality education, language treatment, language acquisition, bilingualism, positive bilingualism*

Aurkibidea

1. Sarrera eta justifikazio pertsonala: gaia hautatzeko arrazoiak.....	4
2. Helburuak.....	5
3. Hizkuntzaren trataera Lehen Hezkuntzan.....	5
3.1 Hezkuntza elebiduna noiz den onuragarri eta noiz ez.....	6
3.2 Elebitasuna eta adimena.....	10
4. Gorputz hezkuntza eta hizkuntzaren trataera biltzen duen curriculum inklusiboa.....	12
5. XXI. mendeko gorputz hezkuntzaren erronkak.....	13
5.1 Ekintza motorra Lehen Hezkuntzako gorputz hezkuntzako programazioan.....	17
5.2 Kalitatezko hezkuntza eta eredu praktikoa gorputz hezkuntzan.....	21
6. Inkesta. Gorputz hezkuntza eta hezkuntza elebiduna eskolan	27
7. Estrategia didaktikoen proposamena. Metodoa.....	30
8. Ondorioak.....	36
9. Bibliografia.....	39
10. Eranskinak.....	43
1. Eranskina. Inkesta. Gorputz hezkuntzak eta hezkuntza elebiduna eskolan.....	43
2. Eranskina. Ikasturte guztien Gorputz Hezkuntzako programazioa...	49
3. Eranskina. Lehen Hezkuntzako 4. Mailako urteko programazioa....	49

1. Sarrera eta justifikazio pertsonala: gaia hautatzeko arrazoiak

Gai honen inguruan hitz egiteak eta ikertzeak nahiez eta gogoz betetzen naute, aspalditik hezkuntzan hankamotz edo erronka baten moduan hartu diren bi arlo izan direlako. Alde batetik, badakigu gure gaur egungo Euskal Herriko eskoletara beste herrialdetatik eta Espainiako beste probintzietatik etorritako ikasle gehiago daudela, eta honen ondorioz, eskoletan sortzen den kultura-aniztasuna geroz eta handiagoa dela. Honek denak ohiko ikasgeletan arazo egoerak sor diezazkieke irakasleei bertan mota askotako hizkuntza, kultura eta ohiturekin aurkitzen direlako. Horretarako, bide egoki bezala ikusten dut gorputz hezkuntzak aniztasun trataera honi eman ahal dizkion irtenbideaz aberastea. Denok dakigu hezkuntzan lan egitea ez dela batere erraza eta askotan ikasle bakoitzak behar dituen trataera egokia zein den asmatzea dela erronka nagusietako bat.

Beste alde batetik, gaur egun, produktu ezberdinen kontsumoak, egunerokotasuneko lan-erritmo altuak eta komunikabideek, gizarte sedentario bat sortu dute. **Bizi estilo sedentarioa** esaten zaion honek, gaixotasun, arrisku eta eragozpenak sortzen ditu, **hipertentsio arteriala, diabetesa eta gizentasuna** bezalakoak izatera bultzatzen dituztenak (Ramírez et al., 2004). Ikerketa batzuek esaten duten bezala, gaur egungo gizarteak gero eta jarduera fisiko gutxiago egiten du. Ateratako emaitzei begiratzuz gero, herrialde aurreratuetan, **gizartearen % 70ak ez du nahiko jarduera fisikorik egiten** (Marquez, Rodriguez eta De Abajo, 2006). Hori dela eta, argi ikusten dugu gure bizi estiloaren eboluzioak jarduera sedentarioetara bideratzen gaituela. Izan ere, ikastetxean, lanean eta aisialdian, denbora gehiago ematen dugu eserita pantaila aurrean (telebista, ordenagailua, bideo-jokoak,...) mugimenduan baino. Rodríguez, De la Cruz, Feu eta Martínezek (2011) Espainiar estatuan ateratako datuen arabera, eskola adinean dauden **ikasleen %37-%40k ez dute gutxieneko jarduera fisikoa egiten**. Benetan kezkatzekoa da gaur egungo umeen egoera jarduera fisikoa zein den ikusita. Arrisku horiek ekiditeko, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) 2010. urtean adin bakoitzera egokitzen diren proposamenak zehaztu zituen. Noski, proposamen hauek kontuan hartzeaz gain, pertsona bakoitzak bere aukera eta mugak ondo ezagutu behar ditu. MOEk (2010) jarduera fisikoaren praktikarako gomendioak hiru adin tartetan zehazten ditu (5-17, 18-64, 64 +). Gomendio hauek bildutako ebidentzia zientifikoetan dute oinarria. Gure lan esparrua Lehen Hezkuntza izango denez, adin tarte horretan zein aholku ematen dituen aztertuko dugu. 5-17 adin tarteko gomendioak dira **egunero gutxienez 60 minutuko jarduera fisikoa** egitea (gehiago eginez gero, onura handiagoak); burutzen

den jarduera fisikoa batez ere aerobikoa izatea; eta astean gutxienez hiru aldiz jarduera kementsuak burutzea.

Bestalde, unibertsitatetik pasatako etapa honetan konturatu naiz komunikazioa zein garrantzitsua den eta egunerokotasunean etengabe erabiltzen den ezinbesteko instrumentua dela bai irakasleentzat, bai ikasleentzat, bai familia eta gizarte guztiarentzat. Askotan begi bistakoa izan da eskolan hizkuntzari emandako trataera ez dela egokiena izaten. Behin baino gehiagotan ikusten da familia batzuek zailtasun handiak izaten dituztela hizkuntzaren ondorioz, kanpotik etorritako ikasleren batek ez duelako hizkuntza ulertzen. Horregatik gorputz hezkuntzaren bitartez, mugimenduan hezi gaitzke eta komunikazio egoera ezberdinak lantzeko, garatzeko; eta sortzeko bide ematen digu ikasleen inklusioa bermatuz, egon daitezkeen sentimendu negatibo horiek alboratuz.

2. Helburuak

Lan honen bitartez erakutsi nahi da irakasle guztiak direla hizkuntzako irakasleak, nahiz eta beste espezialitatekoak izan. Kasu honetan gaur egun indarrean dauden bi gaien arteko lotura egitea bilatzen da. Irakaslearen partetik hizkuntzaren trataera eta komunikazioa garatzea gorputz hezkuntza tresna gisa erabilita. Hortaz, lan honek batez ere bi helburu nagusi ditu.

Batetik, gorputz hezkuntzako irakasle moduan hizkuntzaren trataerari aurre egiteko komunikaziorako tresnaz jabetzea eta gorputz hezkuntzako saio batean interakzioak egoteko egoerak identifikatzeko erraztasunak ematea.

Eta bestetik, hezkuntza formalean gorputz hezkuntza izan behar duen arduraz ohartzea. Horretarako ekintza motorretan oinarritutako domeinuak proposatzen dira umeen garapen integrala emateko.

3. Hizkuntzaren trataera Lehen Hezkuntzan

Hizkuntzak ondo ikasteko asko erabili behar dira, horretarako irakasleek haur eta gazteei euskara asko erabiltzen lagundu behar diete, ikasleek euskara gustuko egoerekin eta bizipen positiboekin lotu behar dutelako eta horretan lagundu behar dute irakasleek. Gaur egungo haur eta gazteak gutxienez hiru hizkuntza ikasten ari dira. Ikastetxeen helburuetako bat hori da, baita guraso askoren nahia ere. Baina hizkuntzak ondo ikasteko eta erraztasuna izateko praktikatu behar dira, eta askok, euskaraz ikasi arren, ez dute eskolaz kanpo erabiltzeko aukera handiegirik gehienen etxeko ama

hizkuntza gaztelania delako, kalean hainbat herri edo auzotan euskararen erabilera ez delako handia; eta telebistan eta sare sozialetan ere gaztelania askoz gehiago jasotzen dutelako.

Euskal gizartera eta hezkuntza sistemara milaka ikasle berri etorri dira atzerritik eta Espainia osotik. Ume horien eskolatzea ez da oharkabean pasa hezkuntza sistematik. Gainera, Euskal Herrira etortzen diren ikasle berriek hainbat zailtasun berriekin egiten dute topo: (1) hizkuntza desberdinak, (2) kultura desberdinak, (3) bizimodu desberdina, eta (4) hezkuntza sistema desberdina (Barquin, 2009).

Gero eta normalagoa da eskoletan hizkuntza aniztasun handiarekin topatzea (12,13 edo gehiago) eta geletan 4, 5, edo gehiago hitz egiten duten umeak izatea (Besalú eta Vila, 2007). Garrantzitsua da irakasleak eta ikastetxeak aberastasun honetaz jabetzea eta ezinbestekoa litzateke profil berriko ikasleen aurrean egokitzea, eguneratzea eta neurri berriekin erantzutea (Barquin, 2009). Kanpotik etorritako ikaslea eta bere ama hizkuntza desberdina izatean bere errendimendua azaldu ahal izateko bi arrazoi nagusi daude. Alde batetik, ikaslearen auto-estimua eta identitatea; eta bestetik, jardueretan gaitasun linguistikoak lantzeko erabiltzen diren irakaskuntza-ikaskuntza estrategiak. Oso zaila da pertsona bati eskatzea hizkuntza berri bat ikastea, irakasten dionak bere hizkuntza baloratzen eta errespetatzen ez badu (Besalú eta Vila, 2007). Horregatik, ikasle etorri berriei gustura sentitu ahal diren testuinguruak eskaini behar zaizkie, eskura dauden estrategia didaktiko guztiak martxan jarritz (Gibbons, 1993). Horretarako, Gorputz Hezkuntza baliabide ezinbestekoa izan daiteke ikasle horiek integratzeko eta eskolako dinamiketan parte hartzeko.

3.1 Hezkuntza elebiduna noiz den onuragarri eta noiz ez

Hezkuntza elebiduna da bi hizkuntza erabiltzen direnean curriculumeko edukiak transmititzeko. Baina, hezkuntza elebiduntzat hartzen da baita ere hizkuntza aldaketa bat gertatzen denean etxetik eskolara eta helburua elebitasuna lortzea denean (Vila, 2014). Hezkuntza elebiduna bultzatzen duen oinarriko printzipioak esaten du ikasle batek hizkuntza ikasteko, egoera errealetan erabili behar duela. Ondoren, erabilerari buruzko gogoeta egin eta hizkuntzaren arauak barneratu behar ditu (Bruner, 1983).

Kanpotik datozen ikasleak, gehienetan, hezkuntza prozesuarekin hasita datoz haien jatorrizko eskola eta hizkuntzarekin, baina hona iristean, Euskal Herrira euskararen lurraldera behartuta daude hemengo hizkuntza ikastera (Besalú eta Vila,

2007). Kasu honetan, ume hauek elebidunak edota eleaniztunak bihurtzen dira. Elebitasun edota eleaniztasun horrek beste motatako eraginak ekartzen ditu: hizkuntza berria ikasterekin batera gaitasunak eta konpetentzia soziokulturalak ikasten dituzte eta honekin batera haien identitatea ere berreraikitzen dute. Edozein modutan, etorritako ikasle berriek gai dira sortzen diren egoera komunikatiboei aurre egiten ikasteko (Nussbaum, 2003).

Hala ere, elebitasuna ez da beti onuragarria izango ikasle guztientzat, baldintza eta faktore batzuen arabera elebitasun gehitzailea ala kentzailea izango delako (Bilbao, 1998). Elebitasuna gehitzailea ala kentzailea izateko bi alderdi garrantzitsu hartu behar dira kontuan bi hizkuntzen partetik: prestigioa eta indarra. Eskolan erabiltzen den hizkuntza nagusia bada, eta etxeko ama hizkuntza gutxitua bada, ikasle horrek etxeko ama hizkuntzari balioa kendu ahal dio eta eskolako hizkuntzaren beharra duenaren sententzia onartuko du baldin eta eskolan ez badu lantzen eta eskolan bere hizkuntza ez bada errespetatzen (Lambert, 1974). Elebitasun kentzailea sortuko da etorkinei eta gutxiengo etnikoen ama hizkuntza baloratua ez denean, ezta aintzakotzat hartuta ere eta behartuta daude 2H ikastera eta ondorioz, esperientzia kentzailea izaten da. Honek sentimendu ezkorrak garatzen dituzte haien ama hizkuntzarekiko eta hau galtzera irits daiteke. Hortik "kentzaile" izena. Gainera sortzen dituen ondorio linguistiko, kognitibo, emozional eta akademikoak kaltegarriak izaten dira. Horregatik, ez da beti benetako elebitasuna lortzen. Aldiz, elebitasun gehitzailea esaten zaio gizabanakoek duten 1Hari 2H bat gehitzen diotenean. Hizkuntza biak baloratuak direnean eta jabekuntza honen ondorio linguistiko, kognitibo, emozional eta akademikoak onuragarriak bihurtzen direnean (Bilbao, 1998).

Honekin lotuta Cumminsek (1979) elebitasunaren arloan balio handia duen Elkarmenpekotasunaren teoria sortu zuen. Bere ustez, hizkuntzen gaitasun biltegi bakarra dago garunean, eta hainbat hizkuntza hainbat sarrera. Edozein sarreratik sartzen dela biltegi bakar hori puztu egiten da. Gaur egun hau da onartzen dena. Berak esaten du hizkuntzen gaitasunak izeberg bezalako forma bat duela, izeberg honek bi zati ditu; itsasotik kanpo dagoena (azaleko gaitasuna) eta barruan dagoena (sakoneko gaitasuna). Azaleko atal hori da hizkuntza baten sintaxia, lexikoa, morfologikoa, estruktura eta abar; hau da, kanpotik antzematen dena. Hizkuntza horren inguruan ikasi behar dena da azaleko gaitasun hau, hizkuntza horrek propio berea duena. Baina honen azpian, itsasoaren azpian, sakoneko gaitasunean hizkuntzaren bitartez ikasten eta egiten dira goi mailako funtzio kognitiboak dira. Esaterako, hizkuntzaren bitartez argudiatzea, arrazoitzea edota azaltzea. Izebergak bi punta dauzka batetik lehenengo

hizkuntza eta bestetik bigarrena. Azaleko gaitasuna biek independentea dute baina sakoneko gaitasuna berriz, berdina.



1. Irudia: Cumminsek-en Elkarmenpekotasunaren teoriaren grafikoa.
Iturria. Bilbao (1998).


Esandakoaren arabera, esan daiteke lehenago hizkuntza bat ikasi behar dela bide hori irekitzeko eta behin hizkuntza hori ikasita gainontzeko hizkuntzak ikasiko dira. Hau da, oso garrantzitsua da sakoneko gaitasun hori hizkuntza batean lantzea gaitasun horiek ondoren beste hizkuntza batzuetara transferituko direlako. Baina sakoneko gaitasun hau transferitzen da beste hizkuntza batera bi baldintza betetzen badira: bigarren hizkuntza hori erabiltzeko aukerak (kalitatea eta kantitatea) badaude eta motibazioa baldin badago. Honek ondorio bat du: etxeko hizkuntza (gaztelera) X eta eskolako hizkuntza (euskara) Y. Euskaratik gaztelera transferentzia gertatzen da seguru hizkuntza nagusia delako baina arazoa dago euskararen mailarekin. Izan ere, eskolan sakoneko gaitasuna euskaraz lantzen da baina azaleko gaitasuna gehiago haziko da gaztelaniaz.

Erazagoa da transferentzia hizkuntza gutxitutik nagusira gertatzea. Baina **transferentzia hori hizkuntza indartsutik ahulera ere egin daiteke, hau erabiltzeko motibazioa eta aukera egokiak badira**. Cumminsek dio: “haurrak eskolan X delako hizkuntza bat erabiliz lantzen dituen gaitasun komunikatiboak Y delako beste hizkuntza batean ere erabili ahal izango ditu, baldin eta Y hizkuntza hori eskolan edo gizartean erabiltzeko aukera egokirik eta hura ikasteko motibazio nahikorik badu”.

Azaleko gaitasun horri Pertsonarteko Komunikaziorako Oinarrizko Trebetasunak (BICS, Basic Interpersonal Communication Skills) deitzen zaio, harremanetarako behar den hizkuntza. Baina hizkuntzaren bidez adimen-operazio sakonagoak egiteko eta adierazteko, gaitasun konplexuagoa erabili behar da, hau da, Hizkuntza Akademikoko Gaitasun Kognitiboa (CALP, Cognitive Academic Language Proficiency). Azken hau da eskolan arrakasta izateko erabili behar dena (Lasagabaster eta Sierra, 2005). Hizkuntzak bi funtzio ditu, komunikatzeko erabiltzen denean BICS erabiltzen ari gara, baina eskolan hizkuntza ez dugu erabiltzen bakarrik horretarako, erabiltzen dugu batez ere gaitasun kognitibo batzuk hartzeko (CALP). Hori da sakoneko gaitasuna eta transferitu behar duguna (Lasagabaster eta Sierra, 2005).

Bereizketa hau egitea oso garrantzitsua da izan ere, elebakarra nahiz eleanitza izan CALP lortu behar da eskolan, hori gabe ez baitago eskola arrakasta, batzuetan BICS-en geratzen direlako.

Hasieran keinuak erabiltzen dira hizkuntza ikasteko, hau da, testuinguruak laguntzen du hizkuntza hori ulertzen. Baina hizkuntza hori ikasi ahala testuinguruaren laguntzarik gabe hizkuntzak hartzen du garrantzia. Beraz, hizkuntza ikasteko Coelho (2016) ibilbide bat proposatzen du ikasleentzako ikaskuntza-jarduerak eta ebaluazioak diseinatzeko. Eredu horrek lau koadrante osatzen dute:



2. irudia: Hizkuntza jabeakuntzaren prozesua (Coelho, 2016)

“Testuinguruan txertatua / testuinguru murrizkekoa” zenbateraino laguntzen duen testuinguruak adierazten du. Ardatzaren ezker aldean hizkuntza testuinguru esanguratsu batean sartuta dago eta aurrez aurreko interakzioek, keinuek eta abarrek laguntzen diote esanahia ulertzen. Eskuma aldean hizkuntza informazioak ez ditu kanpoko lagungarriak esanahia adierazteko (Coelho, 2016).

“Kognitiboki zorrotza / kognitiboki ez zorrotza” zenbaterainoko eskakizun maila eskatzen zaizkien ikaslearen buru prozesuei adierazten du. Ardatzaren goiko partean ikasleak baditu beharrezko ezagutza eta hizkuntza maila, eta jarduera errazak izaten dira; adibidez, datu zehatzak gogoratzea inferentziak egitea baino. Ardatzaren beste aldean, jarduerak ikasleak une horretan duen gaitasun mailaz harago daude eta informazio gehiago prozesatzea eskatzen diote ikasleari (Coelho, 2016).

Irakasleek irakaskuntza planifikatzerakoan ikasleei ikasten laguntzeko eta zer dakiten erakusteko baliagarria da eskema honek. Lau koadrante ateratzen dira (Coelho, 2016):

- **A koadrantea:** testuinguruaren laguntza handia eta zailtasun kognitiborik gabeko jarduerak dira. 2H eskuratzen hasi berri diren ikasleak sartzen dira. Bertan BICS deituriko trebetasunak bereganatzeko.
- **B koadrantea:** kognitiboki zailagoak dira baina testuinguruaren laguntza handia mantentzen da. Irakasleek ikaskuntza eta ebaluazio jarduerak bidalitz

lagundu diezaike ikasleei; koadrante horretan, eskakizun kognitiboak eskatzen zaizkie gero eta zailagoak diren atazak burutuz, baina beti ere ezaguna duten hizkera ezaguna erabiliz eta elkarrizketa ugari sortzeko aukerekin. Bertan keinuak, eskemak eta abar erabiliz mezua ulertzen lagunduko dio ikasleari. Etapa honetan CALP garatzen hasi beharra dute.

- **D koadrantea:** hemen ariketa zailenak daude zailtasun kognitibo handikoak eta testuinguru txikiko laguntza dutenak.
- **C koadrantea:** koadrante honetako jarduerak ez dira egokiak edozein ikaslearentzat: kognitiboki oso errazak eta testuinguru esanguratsu batean sartuta ez dauden ariketak, ez dira ikasteko lagungarriak.

A eta B-n elkarrizketa bat mantentzeko gaitasuna lantzen da, elkarrizketa horren gaiak duen zailtasunaren arabera A edo B-n kokatuko da. Izan ere, elkarrizketa batean testuinguruak laguntza handia ematen du. Antzerki bat egitea berriz, B koadrantean kokatuko genuke testuinguruak asko laguntzen baitu eta gidoia ikasteak zailtasun kognitiboa eskatzen duelako. Irakaslearen ikuspuntua definitzea testuinguruaren arabera izango da, laguntza baldin badago B-n kokatuko genuke baina laguntzarik ez badago, ordea, D-n.

Baina honek arrisku bat dauka, fatxada linguistikoa deiturikoa, haurrak badu BISC egiteko gaitasuna eta orduan hori daukanez irakasleek pentsatzen dute hizkuntza badakiela eta gainontzekoek egiten dutena egiteko gai dela uste dute (idatzi, ulertu eta abar). Baina hori ez da horrela, erdian barra bat dago eta barra horrek desberdintasun itzela egiten du goiko eta beheko mailaren artean. Beraz, BISC eta CALP ez daude batere lotuta, BISC izateak ez du esan nahi CALP egiteko gai denik. Hau da kanpotik datozen ikasle askoren porrotaren arrazoia.

Gaztelera ez den beste hizkuntza batekin datozenek BISC hori eskuratzeko bi urte behar dituzte baina hori nahiko orokorra da salbuespenak badaude eta hori testuinguruaren arabera da. CALP garatzeko berriz, bost urtetik gora behar dira. Horregatik adina oso garrantzitsua da ikasle hori zein adinarekin datorren CALP hori garatzeko denbora asko behar delako (Coelho, 2016).

3.2 Elebitasuna eta adimena

Unitate didaktikoak diseinatzerakoan irakasleek kontutan izan behar dute haien ikasleen hizkuntza gaitasuna zein mailatan dagoen programazio egoki bat planifikatu ahal izateko. Irakaskuntzaren bidez ikasleen hizkuntza eta adimen gaitasunak zabaldu eta indartu daitezke (Bilbao, 1998). Eskolan beharrezkoak diren adimen-gaitasun horiek martxan jartzeko hizkuntza da bide nagusietako bat, baina Gorputz

Hezkuntzaren bitartez inteligentzia motorra ere aktibatu daiteke. Ikasleari mugimenduan heztea ezinbestekoa izango da hizkuntzarekin ondo aritu ahal izateko. Biak elkarturik adimen aldetiko abantailak eskuratuko ditu.

Bilbao (1998) bere testuan aipatzen duen bezala, Cummins eta beste zenbait ikerlarien iritziz, elebidun orekatuak direnak, hau da, bi hizkuntzak ondo menperatzen dituzten umeak hiru abantaila kognitibo nagusi garatu ahal dituztela:

1. **Pentsaeraren malgutasuna:** elebidunak diren pertsonak garatuagoa dute pentsamendu dibergentea. Honek esan nahi du egoera baten aurrean edo arazo baten aurrean pentsamendu dibergenteak aukera original asko ematen dituela. Hori ez zaie gertatzen pentsamendu konbergentea (erabilera bakarra) duten hurrei. Egoera edo arazo baten aurrean irtenbide bakarra edo gutxiago topatzen dituztelako. Hau gertatzen da txikitatik bi hizkuntzekin lanean daudelako eta bi sistemak martxan egoten direlako denbora guztian eta horrek pentsamendu dibergentea errazten du.

Adibidez: *“zer egin daiteke uztai batekin?”* galderari erantzun gehiago eta sormen handikoak emango dizkio.

2. **Kontzientzia metalinguistikoa:** elebakarrek ere lortzen dute baina elebidunek lehenago. Honek esan nahi du kontziente izatea hizkuntza osagai bat dela eta bestea dela objektua funtzio jakin batzuk dituen; hau da, hizkuntza arbitrarioa dela objektu bati izen bat edo beste jartzeko. Horretarako umeekin jolasak egiten dira: elebakar eta elebidunak diren hurrekin animaliei izenak aldatzeko esan eta argi ikusten da elebakarrak ez direla hori egiteko gai eta elebidunak berriz, bai. Honek eragina du hizkuntzen ikaspenean, eta ahalbidetzen du akatsak zuzentzen, hiztegia barneratzen eta abar.

Adibidez: *“deitu dakiok txakur behiari eta behi txakurrari?”* hitza eta esanahia banatzeko gai izatea.

3. **Komunikaziorako sentimena:** elebidunek hobeto ulertzen dute komunikazio egoera batean bete behar diren baldintzak. Hau frogatzeko, ume batzuk begiak estalita jarri zituzten eta ume horiei azaldu behar zitzaaien mahai joko baten arauak. Gero arau horien azalpenak elebakarrek eta elebidunek ematen zituzten eta elebidunek hobeto ulertzen zutela azalpena zirudien kontuan hartuta begiak estaliak zituztela.

Baina elebidun guztien kasuan ez dute abantaila horiek guztiak lortzen. Atalasearen teoriaren bitartez frogatzen da hori ez dela egia. Teoria hau Cummins, Toukoma eta Skutnabb-kangas-ek definitu zuten 1970eko hamarkadan. Teoria honen

bidez elebitasuna adimen garapenerako onuragarria noiz den zehaztu nahi izan zuten ikerlariok (Bilbao, 1998). Haiek esaten dute hizkuntzaren ikaspenean bi atalase daudela:



3. **Irudia:** *Cummis, Toukoma eta Skutnabb-kangas-en Atalasearen Teoriaren irudia.*
Iturria. Bilbao (1998)

1. **Lehen atalasea:** hizkuntzetako batean gutxieneko maila bat lortu behar du. Hizkuntza batekin behintzat gainditzen badu maila hori eta sakoneko gaitasunak lantzeko maila lortzen badu nahiz eta bestea bidean geratu ez ditu izango ez abantailarik eta ez desabantailarik adimenari begira, ondorio neutroak izango dira.

2. **Bigarren atalasea:** Hizkuntza bietan bigarren atalase hau gainditzen bada eta gaitasun ona lortzen baldin bada -elebidun orekatua bihurtuz- goian aipatutako abantaila guztiaz aprobetxatu daitezke.

4. **Gorputz hezkuntza eta hizkuntzaren trataera biltzen duen curriculum inklusiboa**

Curriculum inklusibo batean, ezagutzetara hurbiltzeko modua aldatu egiten da eta ikasleei era askotako ikuspegi eta esperientziak erakusten zaizkie. Mota honetako curriculum batek, gizarte kritikarako eta ekintzarako trebetasunak garatzen laguntzen die ikasleei. Diseinu berria egiteko irakasleek hainbat alderdien inguruan hausnartu beharko dute: ikasleei irakatsiko zaien edukia, sustatzen diren kultura balioak, ikasleek eskolara eramaten dituzten aurre-ideiak eta esperientziak, eta ikaskuntza estrategien hautapena (Coelho, 2016). Coelhoen (2016) esanetan “curriculum inklusibo batek ez du erabat alboratzen eduki tradizional edo europarra, beste kultura-jatorri batzuetako edukiarekin eta ikuspegiekin parekatu baizik”. Beraz, funtsezko edukiak gordeko dira, kontzeptu nagusiak garatzeko eta ikasleek irakasgaiari aurrera egin dezaten. Garrantzitsua da ikuspuntuen arteko orekari eustea, ikuspuntu bat beste batez ordezkatu gabe (Coelho, 2016).

Jarduera fisikoa egiteak aukera paregabea eskaintzen du gizarte integraziorako eta hizkuntzaren garapena lantzeko. Hala ere, etorri berriak diren ikasle askok beti ez dira familiarizatuak sentituko herrialde horretan egiten diren kirol eta joko/jolasekin. Beste batzuk sentimendu ezkorrak adierazi dezakete parte hartzerakoan beraien erlijioarekin eta kulturarekin talka egiten badute. Esaterako, kirol mistoetan parte hartzea, dantza egitea, arropa mota aldatzea edota lotsa eta ezinegona eragin dezaketela beste zenbait ikasleetan... (Coelho, Oller eta Serra, 2013). Horretarako, Coelho, Oller eta Serra hezkuntza programa inklusiboago bat proposatzen dute:

1. Ikasle guztiak ez dira adin berekoak izango eta ez dituzte trebetasun berdinak garatuak izango bere herrialdean beste mota batzuetako kirolak eta joko/jolasak lantzen dituztelako.
2. Ikasleei kirol eta joko/jolas anitzak eskaini behar zaizkie parte hartzea handitu ahal izateko eta garapen integrala emateko ekintza motorraren bitartez.
3. Kanpotik etorritako ikasleei beraien herrialdeetako kirolak eta joko/jolasak partekatzeko aukera ematea. Adibidez, criquetak Indian eta Pakistanen garrantzi handia du.
4. Talde kirolak ez ezik, lankidetzeta, aurkaritza eta psikomotorrak diren ekintza motorrak lantzea egoera fisikoa hobetzeko eta bizimodu aktiboa bultzatzeko.
5. Kultura baloreak errespetatzea. Adibidez, zenbait ikaslek deseroso sentitu daitezke kirol arroparekin eta praka laburrak eraman beharrean zabalagoak diren batzuk eraman ditzakete.

5. XXI. mendeko gorputz hezkuntzaren erronkak

Azken hamarkadetan gorputz hezkuntzaren eredu aberasgarriago bat osatzeko nahi horretan hainbat erronka berri planteatu zaizkio gorputz hezkuntzako ikasgaiari: jarduera fisikoa naturan egitea, osasunera bideratutako egoera fisikoa hobetzea, kirol-hastapena sustatzea, balioetan hezteka, elebitasuna lantzea, etab. Baina benetan gorputz hezkuntzaren gaur egungo erronka nagusia bere helburuak argi edukitzea izango litzateke. Agian galdera hauekin laburbildu daitezke: zein da gorputz hezkuntzak betebeharreko helburu nagusia? Zein da gorputz hezkuntzak hezkuntza formalean hartu beharreko rola?

XX. mendearen bigarren erdian, gizarteak hartu zuen joera ikusita gorputz hezkuntzaren helburua argi zegoela zirudien, kirola errendimendu fisikora orientatzea. Hortaz, gorputz hezkuntzako saioak gaitasun fisikoak entrenatzera, eta ikasleen

oinarrizko trebetasunak hobetzera bideratuta zegoen kirol-hastapenera ere non alderdi teknikoetan zentratua zegoen. Normalean aginte zuzenean oinarritutako metodologia erabiltzen zen, batez ere kirol-lehiaketa eta errendimenduari zuzendutako ikuspegia. Joera hau oso kritikatu izan zen eta hezkuntza-sistema baten barruan garatzen den helburu nagusia hori izan behar zela zalantzan jartzen hasi ziren.

Tinningen (1996) esanetan berarentzat benetan garrantzitsuena dena biztanle guztiek jarduera fisikoa egitea da, erregularra izatea eta interesa lortzea. Era horretan, ongizatea lortzeko aukera gehiago daude, norberaren gaitasun fisikoak eta kirol-gaitasunak alde batera utzita, hezkuntza-sistema unibertsal eta derrigorrezko baten parte den irakasgai bati dagokion bezala. Hortaz, gorputz hezkuntzaren garrantzia ikaslearen garapen integralera bideratuta egon behar da.

XXI. mende honen hasieran, gorputz hezkuntza hiru erronka nagusiekin aurkitzen da: 1) gorputz hezkuntzako ikasleek zer ikasi behar duten ikasgai honetan hausnartzea; 2) gorputz hezkuntzan ikaslearen garapen integralean eragina izan ditzaketen argudio sendoak izatea; eta 3) azken 30 urteetan zehar eskatzen ari den profesionaltasun maila lortzea (López, Pérez, Arribas, eta Monjas, 2016).

Lehenengo erronkari dagokionez, López (2016) eta bere kideek egindako ikerketetan aipatzen duten bezala, gorputz hezkuntzako irakasleek ez dute edukien plangintza argi eta antolatu batekin lan egiten. Arlo fisikoa beste arlo desberdin batzuen gainetik dago eta beraien helburu nagusia ikasle guztiek ondo pasatzea da. Honekin erakusten dute berdin zaiela zein eduki mota landu edo zein metodologia erabili ikaskuntza emateko, saioaren ezaugarria beti berdina izanda. Urte bukaeran saioetan aplikatu diren joko motorren zerrenda sortua izatearen joera erakusten dute.

Bigarren erronkak jarduera fisikoari eta osasunari egiten dio erreferentzia. Adituek erakutsi duten bezala, jarduera fisikoa egiteak onura fisiologiko, psikologiko eta sozialak eragiten ditu. Gero eta baliabide eta denbora gutxiago eskaintzen zaio haurren zein gazteen heziketa eta ariketa fisikoari. Gonzalezek (2013) bere liburuan aipatzen duen bezala, berriki egindako azterketek frogatzen dute gero eta sedentarioagoak direla mundu osoko haurrak. Aurretik aipatu dugun bezala jarduera fisikoa modu erregular batean egitea onuragarria da bai gorputz eta buruko osasunerako eta bai gazteak gizarteratzeko. Ondorengo taulan onuren adibide batzuk txertatuta agertzen dira:

Jarduera fisikoaren onurak (Marquez, 1995)		
Fisikoak	Soziala	Psikologikoak
1. Giharrak, hezurak eta artikulazioak osasuntsu garatzen laguntzen du. 2. Gorputz-masa erregulatuz pisua zaindu. Obesitatearen prebentzioa. 3. Hipertentsio arterialari aurre egiten dio. 4. Odoleko kolesterol maila zaintzen eta murrizten laguntzen du. 5. Arnas arazoak dituzten haurrentzako onuragarri (asma, fibrosis...).	1. Tabako eta drogen kontsumotik aldentu. 2. Ikastetxean eta ingurune sozialean portaera hobea azaldu. 3. Gizarteak indibidualtasunera jo → Jarduera Fisikoan Harremanak sustatzen dira (balio zehatzekin: enpatia, errespetua...) 4. Jarrera proaktibo eta sozialak sustatzen dira: Talde lanean jardutea, auto-diziplina, kiroltasuna, gidaritzza, lankidetzeta... 5. Bazterkeriaren kontrabaliok gailentzen dira (aniztasuna eta inklusioa).	1. Antsietate eta depresio sentimenduak murrizten ditu. 2. Umore hobea izaten eta hobeto lo egiten laguntzen du. 3. Auto-kontzeptua eta auto-estimua handiagotzen ditu. 4. Sentimenduak eta emozioak kudeatzeko aukera: lotsak, beldurrak eta abar. <ul style="list-style-type: none"> • Bestelako onurak: <ul style="list-style-type: none"> - Errendimendu akademikoaren hobekuntza.

Ondorioz, ondo planteatutako Gorputz Hezkuntzako ikasgaiak efektu positibo bat eragin dezake ikasleengan ikastetxetik kanpo jarduera fisikoa praktikatzeko jarraitzeko. Irakats metodoen bitartez ikasleriak epe luzera begira, bizimodu aktiboa mantentzeko jarrerak sustatu daitezke (Devis eta Peiro, 1993).

Baina, argi izan behar da, osasuna eta jarduera fisikoaren sustapena ez dela Gorputz Hezkuntzako irakaslearen ardura soilik izan behar, baizik eta eskola osoarena, hezitzaile guztien ardura baita bizitza osasuntsua sustatzea. Horretarako, etengabeko formakuntza ezinbestekoa izango da, ateratzen diren proiektu berrien inguruan informatzeko, gizartearen eskakizunetara egokitzeko eta batez ere, ikasleen etorkizun osasuntsu bat ziurtatzeko.

Honez gain, familiekin elkarlana bideratu behar da, hauekiko erlazio estua mantentzea ezinbestekoa izanik. Horregatik, haiei informazio egokia luzatu eta ikasleak zein baloretan hezi behar diren adostu behar da. Kontzientzia arduratsu bat eta osasun maila egokia mantentzeko ohitura eta jarrerak barneratzearekin batera, ezinbestekoa da kaltegarriak diren horiek zuzentzea (Sánchez, M., Ruiz, B, 1990).

Hirugarren erronkan, Lópezek et al. (2003, 2004, 2005) egindako bilduman argudio garrantzitsuenen azalpenak aurki daitezke: ebaluazioa test estandarizatuen bitartez egitea, jolas librea uztea hezigarria izan gabe, edukien programazio eza, edozein iturritik hartutako unitate didaktikoak erabiltzea inongo hausnarketarik egin gabe, joko motorren bilduma egitea, entrenamendura bideratutako saioak egitea eta irakasleagoaren etengabeko formakuntza eza.

Erronka hauei erantzuna bilatu nahian, gaur egungo gorputz hezkuntzako curriculumari hiru helburu nagusi proposatzen zaizkio EAEko curriculumean hezkuntza sistema publiko, derrigorrezko eta unibertsalari:

1. Ikasleen garapen fisiko-motorra.
2. Ikasleengan kultura motorra sortzea
3. Gizarte demokratiko baten barnean bilatu behar den garapen integrala

Lehenengo bi helburuak gorputz hezkuntzari dagokio, eta hirugarrena aldiz, globalagoa da, beste ikasgaiekin identifikatzea, erlazionatzen eta batzen dena. Hirugarren helburu honekin bi ekarpen garrantzitsu egin daitezke: alde batetik, oinarritzko gaitasunen garapena eta bestetik, ikasleen garapen integrala motrizitatearen aldetik. Funtsezkoa da hiru helburuekin batera, era global batean lan egitea helbururen bat bidetik ahaztu gabe. Hau dena barnebiltzen duen ikaskuntza sistema koherente bat lortzeko, ikasleengan kultura motorra sortzeak bideratuko du. Honetarako egiten den proposamena gorputz hezkuntzan aplikatzeko ekintza motorrean oinarritutako programazioa erabiltzea izango litzateke, honek ikaslearen prozesu osoa hobeto antolatzeko eta sekuentziatzeko aukera ematen duelako. Larraz (2002, 2004) Aragoi erkidegoari egindako curriculum proposamen berrian bezala.

Kirken (2008) arabera hezkuntza sistemako edozein ikasgaiarentzat eta etorkizuneko gorputz hezkuntzako ikasgaiarentzat erronka hirukoitza da: (1) eskolan emandako ikaskuntzak bizitza errealera transferitzea; (2) bizitzarekin lotutako ikaskuntza esanguratsua ematea; eta (3) eskolak instituzio moduan eraldatzaile sozial bezala hartu beharreko erantzukizuna izatea. Hau guztia ulertu ahal izateko gorputz hezkuntzako irakasleari hiru galdera hauek planteatuko zaizkio: (a) gure esku artean dauzkagun ikasleak gorputz hezkuntzan jasotzen dituzten ezagutzak eguneroko bizitzan aplikatu ditzakete?; (b) gorputz hezkuntzan aplikatzen ditugun ikaskuntzak eta ezagutzak eguneroko bizitzarekin loturaren bat edo esanguratsuak dira ikasleentzat?; eta (c) gorputz hezkuntzaren bitartez eskola jasaten ari den transformazio sozial horri aurre egiteko gai da?

5.1 Ekintza motorra Lehen Hezkuntzako gorputz hezkuntzako programazioan

Gorputz Hezkuntzako ikasgaiaren garapena era koherente batean antolatu ahal izateko garrantzitsua da honen inguruan hausnartzea. Horretarako, gorputz hezkuntzako irakasleak bere buruari hurrengo bi galderak egitera gonbidatzen ditut Lehen Hezkuntzako edozein mailatan gorputz hezkuntzako saio bakoitzean ikasleek zer ikasi behar duten argi daukat? Gure ikasgaiak eduki propioak ditu?

Arlo honi ez zaio mugimendua hainbeste interesatzen, baizik eta pertsona horrek nola exekutatu duen ekintza hori ikustea. Batez ere, “mugitzen den horretan izatea” zentratzen dena. Larrazek (*apud* Parlebás, 2006) hau esaten du:

“Todas las actividades físicas y deportivas, cualesquiera que sean, solicitan una actividad corporal que se manifiesta por lo que en ciencias humanas se denomina conductas motrices, es decir comportamientos motores observables, asociados a características internas cargadas de significación: motivación, imagen mental, implicación afectiva, autoestima, datos inconscientes... La conducta motriz representa el denominador común de todas las prácticas físicas y asegura así la unidad en el campo de las actividades físicas”.

Perspektiba hau ez da mugimenduan soilik zentratzen, baizik eta pertsona horrek nola egiten duen, hartzen dituen erabaki motorretan, emozioetan, estrategietan, harremanetan... horregatik jokaera motorraren kontzeptua da benetan gorputz hezkuntzaren arloa gidatzen duena, diziplina honi originaltasuna eta identitatea ematen diona. Jokaera motorraren bidez zentzu eta intentzio batekin jarduten dute pertsonak. Honek laguntzen du ikasleen inplikazio globala ematera eta bere osotasunean garatzera hezkuntza sistema prozesu luze osoan zehar eta hobetu daitekeenak.

Parlebás (1999:46) kirol jarduerak sailkatzeko kode bitar baten bitartez barne logikaren hiru irizpide nagusi ateratzen ditu: lankidetzaren edo lankidetzarik ez (L, L), aurkaritza edo aurkaritzarik gabe (A, A) eta zalantza espazioan edo zalantzarik gabeko espazioa (Z, Z). Hauek denak konbinatuz zortzi kategoriatan antolatzen dira jarduerak (ikusi 4. irudia).

Ekintza motorraren kontzeptua hobeto ulertzeko Parlebás (1999:103) era honetan definitzen du: “campo en el cual todas las prácticas corporales que lo integran son consideradas homogéneas bajo la mirada de criterios precisos de acción motriz”, honek gorputz hezkuntzan erabiltzen diren egoera motor desberdinen kategoriak sailkatzeko bide ematen du.

Perspektiba honetatik jarraituz, Larrazen (2004) aburuz goian aipatutako kategoriak kontuan hartuz ikasleek sei egoera motor desberdinekin aurkitu daitezke. Ekintza motor bakoitzak bere barne logikaren ezaugarri propioak ditu eta denek arazo motor bati erantzuten diote. Horregatik, ekintza motorreko domeinu bakoitzeko jarduera motorrak homogeenak direla kontsidera daitezke. Sei mota hauetatik, bost kirol jardueretan taldekatzen dira eta bestea gorputz adierazpena eta komunikazioarekin.

Hona hemen ekintza motorreko sei domeinuak (Larraz, 2008):

1. **Ingurune egonkorrean** egiten diren ekintza **psikomotorrak**

Egoera hauek espazio egonkor batean egiten dira. Normalean ez da harreman zuzenik egoten beste lankideekin. Parte-hartzaileak bakarrik jarduten du, kideekin edo aurkariekin elkarreragin gabe. Honek ikasleari egokitzapen bat eskatzen dio jokaera motor eraginkorragoak lortzeko. Hau dena testuinguruak eskaintzen dituen exigentzien arabera garatuko dira. Ekintza motorra automatismoan oinarritzen da eta trebetasunetan maila handia lortzea du xedea. Neurgarriak diren jarduerak dira eta gorputz trebetasuna lortzea bilatzen du.

Domeinu honi dagozkion hainbat adibide: *atletismoa, igeriketa, gimnasia, ziba, patinajea, yo-yoa, aizkolaritza...*

2. **Aurkaritzan** aritzen diren ekintza motorrak

Gutxienez, proposatutako helburua lortzea eragozten duen aurkari baten kontra elkarreragiten da. Espazioan egon daitekeen ziurgabetasuna ez dator testuingurutik eraginda baizik eta aurkariarengatik. Ekintza hauetan garrantzitsua izango da aurkariaren jokaerak deskodifikatzea erabaki egokienak hartzeko. Ekintza motor hauek ikasleari aurreikustea, aurrea hartzea eta motrizitatea doitzea eskatzen dio beste aurkariarengatik gailentzeko.

Domeinu honi dagozkion hainbat adibide: *judo, tenis, badminton, karate, pultsoa egiten denean, harrapaketa, buztana lapurtzea, esku pilota...*

- Gizarte egiturak: bat guztien kontra, denok denon kontra eta banakako dueluak (simetrikoak eta asimetrikoak)

3. **Lankidetzan** aritzen diren ekintza motorrak

Ikasle taldea edo gutxienez kideren batekin egiten den elkarreraginaren bitartez, duten helburu hori lortzeko elkarri laguntzearen ondorioz lortuko dute. Kideen arteko interakzioaren ondorioz jardueran zehar behar dutena aurre ikustea eta sor daitezkeen

ziurgabetasunak gutxitu daitezke. Mota honetako jardueretan ikasle guztiek protagonista bihurtzen dira. Harreman positiboak eta solidarioak diren jokaerak sortzen laguntzen dute.

Domeinu honi dagozkion hainbat adibide: *lankidetza erronkak, acrosport, soka salto, esku jolasak, itsuaren dinamika, telefono puskatua...*

- Gizarte egiturak: binaka, talde txikiak eta talde bakarra (denok bat)

4. **Lankidetza eta aurkaritzan** aritzen diren ekintza motorrak

Ekintza motor hauetan protagonistek kideen laguntzarekin eta aurkarien eragozpenarekin jarduten dute. Normalean taldekako norgehiagokei dagozkien jarduerak izaten dira. Interakzio ugaria eskatzen duen testuinguru batean aritzen dira lankideek eta aurkariak egiten dutena deskodifikatu behar dutelako estrategia kolektiborik hoberena egiteko.

Domeinu honi dagozkion hainbat adibide: *futbola, saskibaloia, rugby, polizia eta lapurrak, armiarmaren jolasa, nor da zuzendaria?, lau erpinak, otsoa-oiloa-sugea, baloi eseria, zelai errea...*

- Gizarte egiturak: taldekako dueluak, denok denon kontra (taldeka), bat guztien kontra eta guztiak baten kontra eta jolas anibalenteak.

5. **Ingurune ezegonkorrean** egiten diren ekintza motorrak

Kasu honetan inguruneak ziurgabetasuna sorrarazten du. Beraz, ikasleek jolasteko eremua irakurri egin beharko dute etengabe, aztarnen bila joan, informazioa jaso, prozesatzeko eta horren arabera erabakiak hartzeko, irregularra eta aldakorra den ingurune horretara ondo egokitzeke asmoz. Ingurune basati eta ezezagunean egiten diren jarduerak dira. Normalean jarduera hauekin ikasleek naturarekiko errespetua eta ezagutzak handitzen dituzte, ikasleen arteko bizikidetza hobetzen laguntzen dituzte eta taldearen zein norberaren auto-babesa eta segurtasuna handitzen laguntzen dituzte.

Domeinu honi dagozkion hainbat adibide: *naturan egiten diren jarduerak (sokarik gabeko kirol-eskalada, parapentea, ur bizietako piraguismoa, surfa, windsurfa, basoko orientazioko lasterketak, mendi bizikleta...)*

6. Gorputz adierazpena eta komunikazioa

Gorputz adierazpena haurren garapen integrala garatzeko hainbat baliabide hezigarri dituen hezkuntza diziplina da. Gorputzaren mugimendu-aukerak aztertzen dira egoerak, emozioak, ideiak, bizipenak, pentsamenduak eta abar deskribatzeko, eta era horretan, gorputza komunikatzeko eta adierazteko tresna bihurtzen da. Ikasleen ahozko zein idatzizko adierazpenak hobetzeko asmoz erabil daiteke, haien errealitatearen kontzientzia hartzen lagunduz, haien errealitatearen eta munduaren arteko erlazioa ulertzen lagunduz eta balio zein trebetasun sozialak sustatuz. Irakaskuntza-ikaskuntza eredu motibatzaile bat erabiltzea ekar dezake. Izan ere, ikasleari alderdi psikologikoak, emozionalak, psikomotorrak, sozialak nahiz sormenezkoak era ludiko batean garatzen laguntzen diolako. Alderdi horiek ikaslearen garapen integralean laguntzen dute: lotsak gainditu eta jendaurrean hitz egiteko abilezia lantzen da; gorputz adierazpena hobetzen da; emozio eta sentimenduak adierazteko aukera ematen du; harremanak lantzen dira; talde izaera indartzen da eta gatazkak kudeatzeko tresna baliagarria da.

Domeinu honi dagozkion hainbat adibide: *dramatizazioa, antzerkia, itzal txinatarrak, argi beltzak, mimika, kanta jolasak, dantzak...*

Egoera motorrak								
8 mota								
L, <u>L</u>			A, <u>A</u>			Z, <u>Z</u>		
<u>LAZ</u>	<u>LAZ</u>	<u>L AZ</u>	<u>L AZ</u>	<u>LAZ</u>	<u>L AZ</u>	<u>LAZ</u>	<u>LAZ</u>	Adiera. Jard
1 Domeinua	2 Domeinua	3 Domeinua	4 Domeinua	5 Domeinua	5 Domeinua	5 Domeinua	5 Domeinua	6 Domeinua
Bakarrik psikomotorra	Aurkaritza	Lankidetzatza	Lankidetzatza Aurkaritza	Natur inguruneko jarduerak (Zalantza espazioan)			Gorputz Adierazpena Komunikazioa	

4. Irudia. Ekintza motorren domeinuak

Ekintza motorren edukiak blokeetan antola daitezke. Era honetan, errazagoa izango da egingo diren jarduerekin lotzea eta unitate didaktikoen antolakuntza era koherente batean egiteko erraztasunak izatea. Erabiltzea erabakitzen den domeinuaren arabera ikaskuntza mota batekoak edo bestekoak emango dira eta

jokaera motor desberdinak garatuko dira. Ekintza motorreko domeinuekin errazagoa da gorputz hezkuntzako saioetan zehaztasun gehiago bilatzea eta bide ematen du ikasgaietako programazioak eta saioak eraikitzeko edo errebisatzeko. Gorputz hezkuntzako programazioa ekintza motorretan oinarrituz ikaskuntza prozesu logikoa, sistematikoa, zorroztasuna eta gertutasuna erakusten du ikaslearen eguneroko errealitatearekin. Planteamendu honek zer?, nola? Eta zertarako? Galderei erantzunak bilatzeko irtenbideak ematen ditu.

Larrazen (2009) ustez gorputz hezkuntzan ekintza motor domeinuekin lan egiteak ondorengo abantailak ekartzen ditu: (1) gorputz hezkuntzako saioak antolatzeko aukerak ematen ditu; (2) gorputz hezkuntzako programazio didaktikoak egiteko erraztasunak ematen ditu; (3) gorputz hezkuntzako curriculumeko edukiak garatzeko aukerak ematen ditu; (4) pertsonak izaten ikasteko erraztasunak ematen ditu; eta (5) gorputz hezkuntzako kompetentzia espezifikoak zehazten ditut. Baina hau dena ideia nagusi honekin laburbiltzen du: **gorputz hezkuntzari barne koherentzia ematea**. López (2016) eta bere kideen ikuspuntuaren arabera Larrazek proposatutako abantaila beste batzuk gehitu dizkiote: (a) sei urteetan zehar eta maila bakoitzean era orekatuan eta koherente batean antolatzeko aukera ematen du; (b) irakasleei laguntzen die argi izateko ikasleei zer irakatsi nahi dieten eta nola antolatu behar duten haien ikaskuntzak; (c) edukiak etapaka eta zikloka antolatzeko irizpide logikoagoak izateko aukerak ematen ditu; (d) gorputz hezkuntzako saioan ikasle guztiek arrakasta lortzeko erraztasunak ematen ditu; (e) bizitza errealeko jarduerekin lotura daukate; (f) ikasleari ezagutza motor aberasgarriago bat eskaintzen dio lehen hezkuntzako sei mailetatik igaro ostean.

5.2 Kalitatezko hezkuntza eta eredu praktikoa gorputz hezkuntzan

Bi hezkuntza mota nagusi edo umeak hezteko bi bide nagusi bereizi daitezke Tinningen (1992) aburuz; Kalitatezko hezkuntza eta hezkuntza eraginkorra. **Hezkuntza eraginkorraren** definizio bat bilatzerakoan edo honen ezaugarriak bilatzerakoan, ikaslearen ekintza, klasearen kontrola eta planifikazio zehatza bezalako ezaugarria azaleratzen dira. Irakasleak autoritatea izan behar du eta ikaslea objektu moduan ikusten da, planifikatutako unitate didaktikoa edo are gehiago urteko programazioa ona bihurtzeko; plan horiek gidoi modukoak dira, ikasle aktoreak protagonizatzen (Tinning, 1992). Beraz, hezkuntza eraginkorra irakaslearen helburuetan oinarritzen da zeinak gehienetan hobekuntza fisikora bideratzen diren; laburbilduz irakaslearen modu teknikoan edo ageriko curriculumean oinarritzen da. Horrela, modu instrumental batean

gorputz hezkuntzan lortu nahi diren helburuen bidea bilakatzen da. **Kalitatezko hezkuntzan** aldiz, ezkutuko curriculumari ematen dio enfasia; adibidez, zein da helburu horren funtsa edo balorea? bezalako galderak planteatzen dituelako, ez du helburua garatzea bilatzen. Gainera, umeak etapa ezberdinetatik pasatzea bilatzen du, beraien adinera egokituak daudenak, horrela gaitasun berriak progresiboki ikasten joaten dira eta ekintza bateri eskainitako denbora laburtzen joango dira. Baina orain aipatutako ezaugarri hauek, kalitatezko hezkuntzaren eta hezkuntza eraginkorraren ideien ezaugarri batzuk baino ez dira, ez dute bakoitzaren azalpen argirik ematen. Kasu honetan kalitatezko hezkuntzan zentratuko gara. Horregatik, hezkuntzan eta gorputz hezkuntzako klaseak aurrera eramateko garrantzia daukaten 4 faktoreak sakonki azalduko dira, zertan oinarritzen den ikusteko eta zeri ematen zaion garrantzia ikusteko (Tinning, 1992).

1. Planifikazioa

Kalitatezko hezkuntzan, hausnarketa burutzea funtsezkoa da. Hausnarketaren bidez, aurreko prozesuan (helburuak, gaitasunak, edukiak...) egindako akatsak atzemango dira, eta aukera egongo da moldatzeko edo egokitzeko. Era berean, ikasleen ideiak eta beharrak kontuan hartuko dira planifikazioa egiterako orduan, hezkuntza aberatsagoa eskainiz. Planifikazioa egiterakoan, transmititu nahi diren balore sozialak ere argi izan beharko ditu irakasleak. Gainera, gai izan behar da ikasleekin landuko diren edukiak negoziatzeko, jakinda honek ez duela esan nahi irakasleak ez duela erabakitzeke gaitasunik. Ikuspegi honetan, ikasleek burutzen duten bideak edo prozesuak izango du garrantzia. Irakaslearen helburua, “gizarte ingeniaria” gisa aritzea izango da. Tylerren (1949) eredua: Gaitasunak, Edukiak/Helburuak, Metodologia, Ebaluaketa eta Hausnarketa. Hausnarketaren bidez, edukiak, helburuak eta abar aldatu ahal izango dira, umeen arabera egokituz.

2. Klasearen antolaketa eta kontrola

Ikasleen auto-kontrolaren bitartez kontrolatzen da saioa. Horretarako, ikasle-irakasle artean, “autoritate” erlazio egoki bat sortzea ezinbestekoa da. Erlazio honetan, ikasleek irakaslearekiko errespetu osoa izan behar dute, eta honek ikasleak auto-kontrola izatea eragingo du. Honela, ikasleak izango dira protagonistak. Irakasleak haurren beharrei kasu egiten die. Ikasleek aukeratzen dute zein taldetan egon; ikasleekin adosten dira arauak; eta mehatxurik ez da egoten, arauak hasieratik adostuak daudelako. Irakaslea nahiko malgua izaten da eta pazientziaz jokutzen du; Irakasleak gehiago mugitzen dira, talde guztietara gerturatuz; umeak ez zigortzeko, horretara ez iristeko aurretik mugak adosten ditu ikasleekin. Antolaketa, irakasleak

ikasleekin batera antolatzen du, beraiei askatasuna emanaz materiala hartzeko, taldek egiteko eta abar. Kudeaketaren bidez antolatzen dira (materialak, denbora, espazioa eta jarduerak)

3. Irakats metodoa

Arazoen ebazpenean oinarritzen den metodologia da. Ikasleen erabakiak kontuan hartzen dira ikaskuntza esanguratsua izan dadin. Ondorioz, erabakiak irakaslearen eta ikasleen menpe daude. Irakasleak limite batzuk jartzen ditu, eta ikasleek limite hauen barruan, askatasuna eta esperimentatzeko aukera dute. Erantzun posible desberdinak daude, ondorioz, ikasle guztiei egokitzen da. Ikasleen esku uzten denez ikaskuntza, ikasleek sormena eta originaltasuna erabiliz erantzun motorrak eramaten dituzte aurrera, eta beste ikasleek egindako mugimenduei erreparatuz, modu propioa aurkitzen dute gauzak egiteko. Irakasleak, ikasleei feedback erabilgarriak ematen dizkie, mugak gogoraraziz, gomendioak emanaz eta abar; irakasleak ez die ikasleei zehazten ekintza egiteko modua.

4. Feedback eta ebaluaketa

Kalitatezko irakaskuntzan, ikasleen prozesu osoa ebaluatzen da, ikasleek izaten dituzten jarrerei eta balio sozialei ematen zaie garrantzi handia. Hau ebaluatzeko, Hellisonen (1985) mailak erabiltzen dira. Metodo honen bitartez, ikasleak maila edo etapa desberdinetatik pasatuko dira, eta haien parte hartzea eta ardura igotzen doan heinean, Hellisonen eskalan gora egingo dute. Hauek dira proposatzen dituen mailak:

A) Arduragabetasun maila: Ikasleak desmotibatuta daude, eta jarrera txarra dute. Auto-kontrola izan ezean, ez da ikaskuntzarik izango.

B) Auto-kontrol maila: Ikasleari ematen zaio erantzukizuna, nahiz eta parte ez hartu, ez dute molestatzen. Irakaslea ez da beraien gainean egon behar.

C) Parte hartzearen maila: Ikasleek auto-kontrolatzeko gai dira, eta jolasten hasten dira.

D) Auto-erantzukizun maila: Ikasleek erantzukizuna hartzen ikasten dute, beraien behar eta gaitasunen arabera aukeratzen dute.

E) Asistentzia maila: Ikasleek modu independentean egiten dute lan, ikasleen artean kolaborazioa, laguntza eta besteenganako kezka agertzen da.

Ikasleekin, bizitako esperientzien inguruan hitz egin behar da (emozioak landu), eta ikasle guztiak egindakoarekin gustura egotea izan behar da helburua. Gorputz Hezkuntzako saioak ikasle guztiengana iritsi badira, orduan arrakasta izango dute saioek. Feedbackari dagokionez, ikasleen alderdi positiboak ere azpimarratzen dira, ondo egiten dituzten gauzak esaten zaizkie, errefortzu positiboak emanez. Hauek, deskribatzaileak izaten dira, eta ez epaitzaileak. Ikasleak motibatzen erabiltzen dira, ikasleek beraien buruan sinetsi dezaten, ekintzak hobetu eta garatu ditzaten.

Teoria eta praktikaren artean erlazio desberdinak interpreta daitezke hezkuntza eta gizarteak orientatzen dituzten paradigmen arabera curriculumaren elaborazio eta garapen ezberdinak lekua hartzen dutelako. Eredu curricularrak modelo teoriko eta praktikoen arabera eraikitzen dira. Horregatik Tinningek (1992) proposatzen duen kalitatezko hezkuntza, Hernandezek (2004) aurkezten duen eredu praktikoarekin uztartzea gomendagarria izango litzateke gorputz hezkuntzako saioak aberasgarriagoak izateko.

Eredu praktikoa honetan, kuantitatiboa albo batean utzi, eta alderdi kualitatiboari garrantzia ematea bilatzen da. Curriculum honetan, ikasle, irakasle eta edukiaren arteko interakzioa bilatzen da. Era berean, teoriak lotura izan behar du praktikarekin, baina ez du praktika zehaztu behar. Teoriak, praktikaren ikuspuntua aintzat hartuz, praktika hobetzea eta orientatzea du helburu. Irakaslearen papera beraz, ikertzailearena izango da, saioetan gertatzen denaren inguruan hausnartu beharko du. Ikerketa hauetan lortutako informazioaren bidez, irakasleek parte hartzen dute curriculumaren diseinuan, beste zenbait adituekin batera. Ikus daitekeen bezala, paradigma praktikoa honetan garrantzi handia ematen zaio ikerkuntzari. Irakasleak, saioan zehar gelan gertatzen dena jaso beharko du, ondoren honen inguruan hausnartzeko. Hau da, ekintza bat aztertu, eta bertako arazoei irtenbidea bilatzea. Era honetan, metodo deliberatiboa landuko dute; hau da, egoera zehatz bati erantzuna ematea bere alde positibo zein kontrako aldeekin, egoera esanguratsuak sortuz (adibidez, gertaera adierazgarriak). Ikasleei dagokionez, bera izango da bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista, modu librean ikasiko du, ez modelo teknikoan bezala. Irakaskuntza-ikaskuntzari dagokionez, giro interpretatzaile batean ematen da, non ikasle batentzat abilezia teknikoak duen esanahia bere beharrak sentitu eta ikaskuntza eraikitzeke abiapuntua den. Abilezia teknikoaren esanahia, pentsamendu taktiko edo estrategikoaren bidez lortuko du, eta honek jolas baten planteatzen diren arazo desberdinak ebaztea ahalbidetuko dio. Ikaskuntza perspektiba honek ikaslearen eta ikasle-testuinguruaren arteko harremanean oinarritzen da. Modelo praktikoa honekin, konstruktibismoa gerturatuko ginateke (Davids, Button, Araujo, Renshaw y

Hristovski, 2006; Harvey y Jarret, 2014; Tan et al., 2012). Izan ere, ikasleari uzten zaio bere ikaskuntza eraikitzen, eta irakasleak bere eskuetan dagoen guztia egiten du hori hala izan dadin. Saio batean zehar aurkitu ahal den dinamikarekin aldakorra eta zalantzaz josia egon daitekeelako, hortaz ezinbestekoa litzateke irakaslearen partetik behar guzti horiek ezagutzea eta kontrolatzea (Serra eta Gracia, 2017). Ebaluazioari dagokionez, saioan ematen den guztia hartzen da kontuan, ez da ikaslearen azken produktua edo jokaera motorra soilik ebaluatzen, prozesua, emozioak eta beste zenbait aspektu ere ebaluatzen dira. Modu honetara, arlo kuantitatiboaren aurrean arlo kualitatiboari garrantzia gehiago ematen zaio, hau modu subjektibo batean ebaluatzen delarik. Modelo honetan, irakasleek feed-back-ak ematen dizkiete ikasleei, egindakoaren inguruko hausnarketak egiten dituztelako (Hernandez, 2004).

Hau guztia gorputz hezkuntzarako saioetara eramateko Saguillok (2005) eta Incorpora taldeak (2009) proposatzen dute nola egiten den kalitatezko saio fitxa bat ezaugarri guztiak kontuan hartuz. Saio bat prestatzean, momentu edo fase desberdinak hartzen dira kontuan; hauen bidez, irakasleak egoera ezberdinak proposatzen dituelako, ikasleen ikaskuntza prozesua errespetatuz, ikasleen interesa pizteko helburuarekin eta ikaskuntza maila batekin. Ikasgai bakoitzaren planifikazio, garapen, azterketa eta birplanteamenduetatik hurrengo ikasgaia planifikatzen da. Gertatutakoa da abiapuntua hurrengo saioa egiteko edo prestatzeko eta hau normalean curriculum ezkututik ateratzen da (Tinning, 1992). Beraz, saioa ez da jarduera motor edo jolas batzuen jarraipen bat, baizik eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat, ikaskuntza ematen den fase eta momentuetatik abiatuz.

Saio fitxa		
Data	Maila	Ikasle kopurua
Espazioa	Denbora	Materiala
Saio zbk. (UD barruan)	Helburuak	
Elkartzeko unea		
1. Indibidualizazioa 2. Ikaskuntza giroa sortu (girotu) 3. Arautegi komuna ezarri 4. Saioaren helburua azaldu 5. Aurreko saioan egindakoa GOGORATU, KOMENTATU eta OSATU 6. Gelatik kanpo egindakoa birpasatu (anekdotak) 7. Ikasleen artean informazioa eta ezagutzak partekatu eta hurrengo jarduerak proposatu		

Ikaskuntza eraikitzeke unea

Proposamena

- Ikasleak inplikatzeara, errekonozitzen laguntzea eta gaian aurrera egiteko prestatzea.
- Proposamenak EGITEN, PENTSATZEN eta IKASTEN baimendu behar dute.

Ekintza

- Gaiarekiko erantzun ezberdinak sortuko dira eta irakasleak ulertzen lagundu behar du.
- Garrantzitsuena hemen hausnarketa egiteko informazioa biltzea da.

Hausnarketa

- Gai zehatza, oinarritzko datuak eta denbora espezifikoak behar da
- Momentu ezberdinetan egin behar da (kurtso hasieran, unitate didaktiko batekin hastean, elkartzeko unean, egindako proposamenetan...)

Birplanteamendua

- Gertatutakoaren inguruko hausnarketa egin ostean egindako ikaskuntzatik abiatzen dira.
- ✓ Irakaslearen helburua planifikazioak dibertsitatez aberastea da.
- ✓ Ikasleak ikaskuntzan inplikatzeko aukera izatea.
- ✓ Ikasleek egin, sortu, antolatu, behatu... (erantzukizunak)
- ✓ Pixkanaka kontrola ikasleei pasa (autonomia)

Agurtzeko unea

Saioko birpasoa eta hausnarketa egiteko unea

- Argi geratu ez dena argitu.
- Hurrengo saioa planifikatzeko informazioa atera.
- Hurrengo saioan egingo dena aurreratzeko balio du.
- Ikasleei etxean zerbait egiteko proposatu
- Dena amankomunean jarri

Irakaslearen hausnarketa

Gertaera adierazgarriak (Almendro eta Costa, 2004))

Curriculum ezkutua (Tinning, 1992)

- Sexismoa
- Autoritatea
- Konpetentzia, kooperazioa eta irabazlearen ideologia
- Emozioak


6. Inkesta. Gorputz hezkuntza eta hezkuntza elebiduna eskolan

Lan honi zentsu gehiago emateko asmoz galdetegi bat proposatu da jendeari google formularioren bitartez. Inkesta honen bidez gorputz hezkuntzan zer nolako oroitzenak gordetzen dituzten neurtu nahi izan da. Era berean jakin nahi izan dugu zer iritzi duten gorputz hezkuntzaren eskutik beste bigarren hizkuntza (euskara, gaztelera, ingelesa, katalana...) ikasteko aukera dagoen. Datuen hausnarketa egiteko era kualitatibo batean burutu dira. Helburu nagusia, datu narratiboen bidez gizarte pentsamendu baten ikuspuntu sakona eskuratzean eta azaltzean datza. (Bustingorry, Tapia, eta Mansilla, 2018).

Inkesta bi hizkuntzatan bidali da eta guztira 379 pertsona erantzun dute. Erantzun guzti horien artean Espainiako 9 erkidego ezberdinetatik jaso dira, EAE nagusi izanik. 379 pertsona horietatik 240 (%63,32) hezkuntzarekin erlazioatutako ikasketak dituzte. Eta adin tarte zabal baten lagina jaso izan da (20-69 urte), laguntzen diguna ikuspuntu eta garai ezberdinak izaten.

Atal honetan galdetegian lortutako datuen emaitzak islatuko dira, pertsonen emandako erantzunak azalduz.


- **Gorputz hezkuntza gehien gustatu zaidan ikasgaia izan da.** Bildutako datuetan oinarrituz argi eta garbi ikusten da gehien gustuko duten ikasgaietako bat dela Gorputz Hezkuntza. Datu hauek adierazgarriak izan daitezke curriculumean topatu daitezkeen ordu kopuruengatik. Hausnarketarako bidea irekitzen dute (ikus 5. grafikoa).



5. Grafikoa: Gorputz Hezkuntza gehien gustuko dute ikasgaia


- **Gorputz hezkuntzako saioetan ikasi ditudan gaitasunak bizitzako beste arlo batzuetan aplika ditzaket.** Berriemaileen ustez, oso garrantzitsua da ikasgai honen bitartez ikasten dituzten gaitasunak bereganatzea bizitzako beste arlo batzuetan erabilpena ikusten dutelako. Partaideen gehiengoak erabateko

adostasuna erakutsi dute. Bestalde, gutxi izan dira garrantzi hori era xume batean adierazi dutenak (ikus 6. grafikoa).




6. Grafikoa: Gorputz Hezkuntzako gaitasunen aplikagarritasuna

- **Gorputz hezkuntza pertsona moduan hezteko onura handiak ditu.** Jasotako datuetan oinarrituz eta partaideen iritzia kontuan hartuz, Gorputz Hezkuntzak pertsonetan duen onura oso handia dela esan daiteke, haien garapen prozesurako eta bizimodu aktiborako. Berriemaileen kopuru handi batek erakusten duen moduan (ikus 7. grafikoa).




7. Grafikoa: Gorputz Hezkuntza eta onurak

- **Zenbateko garrantzia ematen diozu hezkuntza elebidunari lehen hezkuntzan?** Ikusi daitekeenez gizarteak hezkuntza elebidunari lehen hezkuntzako garaian bere biziko garrantzia duela esaten dute partaideen kopuru altu batek. Emaitzak kontuan hartuz, oso partaide gutxik ematen diote hezkuntza elebidunari garrantzi gutxi (ikus 8. grafikoa).




8. Grafikoa: Hezkuntza elebiduna Lehen Hezkuntzan

- **Zer motatako garrantzia ematen diozu gorputz hezkuntzako ikasgaiari beste hizkuntza bat ikasterako orduan?** Berriemaileen erantzunei erreferentzia eginez, Gorputz Hezkuntza eta hizkuntza ikastea erlazio zuzena dagoela pentsatzen dute gehienek. Bestalde, gutxi batzuk ez dira erlazioaz guztiz jabetzen (ikus 9. Grafikoa).




9. Grafikoa: Gorputz Hezkuntza eta hizkuntza ikasi

- **Hizkuntza ikasterako orduan gorputz hezkuntza beste ikasgai batzuekin konparatuz abantaila gehiago dituela uste duzu?** Gorputz Hezkuntza eta hizkuntza ikastearen arteko abantaila argi dute parte hartzaile gehienek. Erdiak baino gehiago lotura estua dagoela uste dute (ikus 10. grafikoa).



10. Grafikoa: Gorputz Hezkuntza eta hizkuntza ikasteko abantaila

- **Ikaslearen motibazioa handiagoa izan daiteke gorputz hezkuntzaren bitartez ama hizkuntza ez den beste hizkuntz bat ikasteko.** Partaide gehienek aburuz Gorputz Hezkuntza baliabide oso interesgarri bat izan daiteke ama hizkuntza ez den beste ikasgai bat ikasteko motibazioa pizteko. Erantzunek oso nota altuarekin baloratu dute (ikus 11. grafikoa).



11. Grafikoa: Gorputz Hezkuntza eta hizkuntza ikasteko motibazioa

6. Estrategia didaktikoen proposamena. Metodoa

Nola erabili gorputz hezkuntzako saioak kalitatezko interakzioak egiteko eta hizkuntza irakasteko tresna izateko? da lan hau goitik behera gidatzen duen galdera ikertzailea. Horretarako identifikatu behar dira noiz sortu daitezkeen interakzioak irakasle-ikasle eta ikasle-ikasleen artean. Interakzioak ez badaude, irakasleak proposamenak ezarri behar ditu. Hoberena modu naturalean sortzen diren interakzioak dira. Azken finean hizkuntza benetako helburu batekin erabiltzen denean ikasten delako.

Kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko Gorputz Hezkuntzako saio batek lau fase desberdinetan antolatzen dela ikusi dugu. Elkartzeko une, ikaskuntza eraikitzeko

unea, agurtzeko unea eta irakaslearen hausnarketa. Momentu bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina hauen bidez, irakasleak hainbat egoera proposatu ahalko ditu testuinguru anitzetan eta funtzio desberdinekin. Gainera gertatutakoa abiapuntua izango da hurrengo saioari ekiteko. Beti ere ikasleen parte hartzea sustatuz.

Hau guztia kontrolpean izateko irakasleari laguntzeko proposatzen den hurrengo eskema kontuan hartzea gomendatzen da saio bakoitzean ikasleen parte hartzea bilatu nahi bada eta honen ondorioz kalitatezko interakzioak egotea eta hizkuntza ikastea nahi bada.

Galdera ikertzailea erantzuteko hurrengo eskema jarraitzea gomendatzen da:

- **Egoerak → Testuinguruak → Funtzioak**

Egoerak. Identifikatu egoera aproposak interakzioak egiteko. Beharrezkoak diren momentuetan zeintzuk diren hauteman eta aprobetxatu egoera horiek interakzio egokiak egiteko. Horretarako irakasleak aztertu eta interakzioak egon daitezkeen jarduerak proposatu behar ditu.

- Nola?

- Ekintza motorreko domeinuak kontuan hartuz. Honek bide ematen du jarduera mota desberdinak egiteko eta era honetan ikasle guztiek nabarmendu ahalko dira momenturen baten.
- Saioa prestatzerakoan saio fitxan agertzen diren fase desberdinak kontuan hartzea. Kasu honetan garrantzia handia hartuko lukete elkartzeko eta agurtzeko unea, non ikasleen parte hartzea bilatzen den.

Testuingurua. Goian aipatu den bezala espazio desberdin anitzetan jarduteko ekintza motorrak daude. Ondorioz, beti egongo dira interakzioa baldintzatzen duten faktoreak, hala nola Irakaslea→Ikaslea→Testuingurua→Jarduera. Hau guztia, espazio natural batean, jolastokian, gimnasioan, pasilloetan edo geletan aurrera eramaten dira eta horretaz baliatu behar da irakaslea une oro.

- Nola?

- Domeinu bakoitzeko gizarte egiturak kontuan hartuz
- Talde handian edo talde txikian den
- Galdera motak
- Hizkuntza mailaren arabera ikasleek eman ahal dituzten erantzunak

Funtzioak. Zertarako? Galderari erantzuten dio. Hemen komunikazioa zer erlazio duen hizkuntzarekin eta gorputz hezkuntzarekin bilatzen da. Ezinbestekoa da ikasleen parte hartzea hau gertatu ahal izateko. Baina irakaslearen rola funtsezkoa da hau dena bete dadin.

➤ Nola?

- Modu naturalean sortzen diren interakzioak bilatzea
- Jokoen azalpenak ikasleek ematea
- Arauak denon artea adostea eta egunero gogoaraztea funtzio didaktiko batekin.
- Nola sentitu diren adieraztea
- Gatazkaren bat gertatu bada azaltzea
- Hizkuntza dakiten ikasleak aprobetxatu hizkuntza ez dakiten ikasleei laguntzeko
- Galdera irekiak edo itxiak egitea irakaslearen arabera

Metodologia honetan eskolak komunikatiboak, esanguratsuak eta inklusiboak izan behar dira transferentzia eman dadin ama hizkuntzarekiko motibazioa eta hizkuntza berriaren erabilera sustatzeko eta gaitasun egokiak lortzeko. Laguntza linguistikoa eman behar zaie eskolako hizkuntza ezagutzen ez dutenei, bertakoei zein etorkin berriei:

- **Input egokia eman**, irakasleak ikasle bakoitzari behar duena eman.
- **Outputa erabiltzeko estrategiak** erabiltzea. Interakzioa irakaslearen eta ikasle taldearen artean. Hizkuntzak hitz egiten ikasten dira; beraz, irakasleak interakzioak egin behar ditu ikasleek hitz egin dezaten.
- **Interakzioa irakaslearen eta ikasleen artean** trukatzeko komunikatiboak egoteko.
- **Elkarlanean oinarritutako jarduerak**, hau da, ikasleen arteko elkarlana.

Irakasleek lortu behar dutena da gelan giro atsegina egotea, irakasle eta ikasleen arteko harremana ona izatea eta ikasleen arteko harremana ere bai. Horretarako metodologiak, ariketak, jarduerak eta abar egokiak izan behar dira. Jabekuntza hori emateko, bakoitzak hizkuntza ikasterako orduan duen motibazioa oso garrantzitsua da. Honekin lotuta funtsezkoa da inputa eta outputa egokia izatea; hau da, elkarrizketa egokia izatea.

❖ Input egokiaren ezaugarriak

- Ulergarria, interesgarria, mezuan zentratua, ikasleari hitz egin behar zaio dakiena baino pixka bat zailago (i+1) eta aberatsa izatea (Krashen, 1985).

❖ Ikasleen outputa nola eragin

- Harreman komunikatiboetarako aukerak eman, asko eta onak.
- Elkarrizketa sor dadin ikasleen interesetatik abiatu, aprobetxatu ikasleek proposatzen dituzte gaiak eta horiek hedatu.
- Gaiak proposatu. Gaia aldatu zailtasunak daudenean edo interesa galtzen denean.
- Galdera asko egin bestearen ulermena maila konprobatzeko eta gaia interesgarria zaion konprobatzeko.
- Erraztu ikaslearen parte hartzea. Horretarako galdera itxiak egin daitezke edo galderekin batera erantzuna proposatu: *noiz dator, gaur?*
- Elkarrizketen helburua komunikatiboa da, beraz, naturalak izan behar dute, mezuan fokalizatuak, ez forman. Ez dugu elkarrizketa bat sortuko egoera gramatikal jakin bat errepikatzen. Horretarako beste ariketa batzuk egin daitezke, baina ez sasi elkarrizketak.
- Ikasleak galdetzen ikasi behar du, elkarrizketetan parte hartu ahal izateko
- Eta batez ere, interesa erakutsi, ikasleak esaten duenari garrantzia eman .

Azken finean, outputa eragiteko irakasleak GALDERAK EGIN behar ditu, hori baita outputa eragiteko modu bakarra eta eraginkorra. Ikaslearen mailaren arabera, elkarrizketa hauek banaka edo taldeka egin behar dira, baina argi dago eraginkorra banakako elkarrizketa dela.

Irakasleak estrategia batzuk erabili behar ditu beraien ikasleen outputa ondo eragiteko. Estrategiak egokiak badira, outputa modu naturalean aterako dira.

Irakasleak elkarrizketan erabiltzen dituen estrategiak

1. Estrategia orokorrak (Tough, 1989):

- **Orientazio estrategiak**

Gaia proposatzen dute, zertaz hitz egin orientatzeko. Iruzkun zuzenak eta galderak izaten dira.

Adb: “ Zer gertatu da? Zertaz doa jolasa? Zer ari zara marrazten? Kontaidazu zer egin duzun”

- **Errazteko edo laguntzeko estrategiak**

Haurrak bere berbaldian hartu duen gaia sakonago aztertzea dute helburu. Batzuk dira informazioa osatzeko *“baloia zulatu egin dela diozu, baina besterik gabe zulatu da?”*. Beste batzuk informazioa zentratzen dute: arreta alderdi jakin batean jartzen laguntzen diote. Galdera itxiak izaten dira, zehazten laguntzen diotenak *“non zegoen zehazki?”*, *“Nola gertatu da?”* Azkenik, esandakoa egiaztatzea: esandakoa egiaztatzerara eramaten dute ikaslea, ideia egokia ote den berrikustera. Horretarako oso garrantzitsua da irakasleak ondo ulertzea zertaz ari diren *“denak berdin-berdinak direla diozu?”* *“Erori egin da ala bota egin dute?”*

- **Informazio estrategiak**

Irakasleak hitz egiten die ikasleei, informazio berria emateko, kontrastatzeko, konparatzeko, laburtzeko, kontatzeko, argudiatzeko, ..., hori egitean, pentsatzeko eta berbaldia eratzeko ereduak ematen dizkie. Hemen haurrak inputa ere barneratzen du.

- **Sostengu estrategiak**

Ikaslearen parte hartzea bermatzeko eta bultzatzera bideratutako estrategia, bere pentsamendua zabal dezan. Irakasleak tentuz entzun behar du, baiezko keinuak, onarpen adierazpenak eginez eta ikasleak esandakoa berresanez.

Adb: “a bai, ikusten dut;

Oso ondo, oso interesgarria

ah, bai? Eta gero zer gertatu zen?”

- **Bukaera estrategiak**

Ariketa edo jarduera bukatzeaz dagoela abisatzeko:

Adb: “oso ondo, orain hurrengo jolasarekin jarraituko dugu.

Bale, ba, bihar kontatuko didazu gehiago”

2. Hizkuntza irakasteko estrategiak (Besalú eta Vila, 2007)

- **Errepikapenak**, haurrak esaten duena errepikatu
- **Birformulazioa**, haurrak gauza bat gaizki esaten duenean zuzenduta itzuli.
- **Hedapena**, umeak esaten duena hartu eta informazio gehiago eman edo ikasleak esaten duenarekin esaldi bat osatu
- **Zuzenketak**, modu askotan zuzendu daiteke, esandakoa errepikatzea eskatu, birformulazioa eta abar.
- **Ordezkapenak**, ikasleak esaten duen hitz bat beste batengatik ordezkatu. Normalean haurrak erdarazko hitz bat esaten duenean irakasleak euskara pasatzen du.

3. Trukatze komunikatiboak honako hauek dira (Ruiz Bikandi, 2009)

Etiketatu: hau da, gauzei izenak jartzea. Funtsezko betebeharra. Horregatik, ohiko praktika da gai baten inguruko mural bat jarri gimnasioan eta hortaz hitz egin, agertzen diren gauzak izendatuz eta horietaz hitz egin.

Partekatutako esperientziak kontatu, elkarrizketa forman. Konpartitu diren esperientziez hitz egin, beti irakasleak gidatuta. Honek ikasleari laguntzen dio gaiak aukeratzen eta informazioa modu ordenatuan ematen. Egindako irteera baten argazkiak edo bideoa ikusi, klasean egindako jolas bat gogoratu, horretaz gogoeta egin. Praktikarekin, laguntza kontestuala murriztu daiteke eta hizkuntza bihur daiteke ulermenerako tresna nagusia.

Fikziozko kontakizunak. Kontakizunetan izaki bizidunen batek arazo bat du, eta hainbat gertaera bizi izaten ditu helmuga batera iristeko. Marko egokiena dira aritzeko: zio eta helburuez, kausa eta ondorioez, giza portaeraz eta ekintzen logikaz. Ipuinek egitura finko samarra izateak laguntzen du, bai gogoratzen, bai istorioa antolatzen. Narrazio-egiturak bi plano izan ohi ditu, pertsonaien ahotsa, zuzenean, eta kontalariaren ahotsa, eta aditz-aldiak (oraina/iragana) aldatu egiten dira. Denborazko eta kausazko kohesio mekanismo argi ezarrita egon ohi dira. Ipuinak zaildu egin daitezke ikasi ahala, pertsonaia gehiago sartuz, denboran saltoak eginez... Antzeztu egin daitezke, eta horri esker ikasleek esaldi erabilgarriak gogoan har ditzakete.

Ikasleek hitza hartu bizitako **gertaerak kontatzeko.** Hau da, besteei ezagutzen ez dituzten gertaerak kontatu. Kasu hauetan, hasieran irakasleak laguntza handia eman beharko dio ikasleari, galdera asko eginez, beste ikasleak animatuz gauza bera egitera, informazioa ondo antolatu dezan eta gelditu daitezkeen hutsuneak bete ditzan. Praktika hau oso erabilia da hasierako mailetan baina gerokoetan ere garrantzia handia du, hau delako gehien erabiltzen dugun elkarrizketa mota. Azken finean beti ari gara besteei kontatzen gertatu zaizkigun gauzak, besteek ez dakizkitenak.

Gertaerak iragarri, Honek trebatzen ditu ikasleak planak eta hipotesiak egitera, hain beharrezkoak eguneroko bizitzan eta arlo akademikoan. Honen bitartez, ikasleak dakienetik abiatu behar da eta ezagutza hori etorkizunera proiektatzen du, litekeena baloratuz. Logika aplikatzeaz gain, aditz denbora, ahalera, baldintzak erabiltzea behar-beharrezkoa da. Jarrera aldetik ere, honek bide ematen du bestearen tokian jartzeko: *zer egingo zenuke zuk kasu horretan? edo Nola sentituko zinateke zu, halakoa gertatuko balitz?*

Esanahiak bilatu. Hitzen esanahiaz hipotesiak egin. Horrekin inferitzen ikasten dute. Testuingurua eta testua erabiltzen ikasten dute esanahiak ateratzeko.

Azaldu. *Nola?* eta *Zergatik?* galderei erantzun egiten die. Ikasgelan maiz gertatzen den berbaldia izan arren, trebakuntza handia behar da azalpena menderatzeko. Hitzunak ezarri behar dituen harremanak logikaren esparrukoak dira: kausa-ondorioa, kontrajarpenak, adibidea, baldintza, inklusioa, salbuespena, eta abar. Azalpenak ekintzen laguntzaz ematea errazago gertatzen da. Errazagoa da irudiz lagundutako azalpena hitz hutsetan oinarritzen dena baino.

Dena ikasten dugu beste pertsona baten laguntzarekin. Beraz, elementu giltzarria irakaslea da, irakasleak ondo egiten badu haur horrek hizkuntza ondo ikasiko du. Ikasleek, hizkuntza erabiltzean, hari buruz ere ikasten dutelako. Egoera askotariko esperientziak eskaini ikasketa gehiago emateko. Denok dakigu hizkuntza komunikatzeko tresna dela, bai baina, batez ere, hizkuntza gauzak egiteko erabiltzen dugula jakin behar dugu.

7. Ondorioak

Eskolek bide egokiak erabili behar dituzte hizkuntza eta kultura aldetik, beste herrialde batzuetatik etorri berriak diren edo euskara eskolan ikasten hasi diren ikasleei. Garrantzitsua da ikasteko aukera kontuan hartzea hizkuntza ikasten ari diren ikasleekin. Horrekin batera, ikasle guztiek dute irakaskuntza programa egokiak izateko eskubidea euskara gaitasun maila altua lortzeko eta maila akademiko egoki batera iristeko.

Umeez beraien kabuz ikertu behar dute hizkuntzaren eraikuntza nola dagoen ikusteko eta zorionez gai dira jarduera hori egiteko. Baina dena ezin dute beraiek bakarrik egin. Ibilbidea erraztuko dien hizlari batzuen laguntzaren beharra dute gaien ulermena errazteko, taldekako jarduerak egiteko, informazio argia emateko eta ikasleei lagundu haien hipotesiak baieztatzen. Horretarako ezinbestekoa da irakasleak hitz egin eta ikasleak entzun egitura saihestea. Ikasleak bere txanda erabili behar du dakien moduan komunikatzeko: keinuak, onomatopeiak, bere 1 hizkuntza, tarte-hizkuntza... kontua da elkarrizketan parte hartzea. Irakaslea saiatu behar da benetako komunikazioa sustatzen umeez hizkuntza benetako gauzak egiteko eta elkartrukatzeko errealerako erabiliz. Ondorioz, Interakziorako aukera onak eta ugariak aprobetxatu eta proposatu behar dira testuinguru argi, esanguratsu eta interesgarri batean.

Aurkitzen garen mundu aldakor honi aurre egiteko jarrera positiboa erakutsi behar dugu kulturantzatasuna eta eleaniztasunaren aurrean. Bizi garen gizartean gero eta aniztasun handiagoa dagoelako bai hizkuntzaren aldetik eta bai kultura aldetik. Argi geratu behar da posible dela hizkuntzarekin zailtasunak dituen ume bati hizkuntza irakastea. Izan ere, hezkuntza elebidunaren ideia nagusia hizkuntza erabiltzea eta berarekin gauzak egitean datza. Hau ikusita irakasleek eskoletan metodologia berritzaileak sartu behar dituzte laguntzen dutenak ikasleei taldeetan lan egiten eta arazo konplexuak konpontzen. Gaur egun, hau da hezkuntza elebiduna hezkuntza sisteman egiten duen gehigarria.

Aipatu berri den metodologia berritzaile horien beharra hizkuntzaren trataerari aurre egiteko Gorputz Hezkuntza ikasgaiak duen garrantziaz jabetu behar gara. Nire ustez hezkuntza sisteman indar gehiago izan behar duen kompetentzia izan behar delako eta ez orain arte bezala ez duelako hainbesteko garrantzirik izan. Gorputz Hezkuntzaren bitartez ez dira bakarrik helburu osasuntsuak burutzen. Ikasgai honek beste aukera gehiago proposatzen ditu. Gorputz Hezkuntzako irakasleak proposatzen dituen egoera motorren eta ekintzen motorren bidez ikasleek lehengo pertsonan bizi ahal dute, haien praktiken protagonismo osoa izanik. Kompetentzia motorra hezteko duen potentzialaz jabetu behar da gizartea. Oinarrizko gaitasunak garatzeko eskaintzen dituen aukera anitzak dira. Baliteke gizartea hau ez jakitea eta seguruenik hezkuntzan lan egiten duten profesional askok ere ez.

Ikaskuntza esanguratsuak identifikatzea, edukiak koherentziarekin sailkatzea, ikasgaiaren kompetentzia propioak zein oinarrizko kompetentziak lantzea eta metodologia egokiak erabiliaz izan daiteke ondorengo urteetan zehar Gorputz Hezkuntzaren erronka nagusiak. Seguruenik aldaketa hauek ez direla curriculum berritzaile baten eskutik etorriko. Aldaketak apurka-apurka egiten joan beharko dira ilusio handiko irakasleekin eta ikasgai honetan hezteko benetan sinesten dutenekin. Era honetan lortu egingo da Gorputz Hezkuntza eraberritu bat eskaintzea.

Inkestan ikusi daitekeen moduan Gorputz Hezkuntzaren inguruko datuak oso positiboak izan dira. Eta argi azaleratu dute berriemaileek hizkuntzaren trataera eta kompetentzia motorra eskutik helduta doazela. Bata bestearengatik elikatzen direla eta bien arteko lotura egitea ezinbestekoa dela ikaslearen garapen integralerako. Ikusi dugu ere ikasteko motibazioa handiagotzen duela ikasgai honek eta lortu daitezkeen abantailak ugariagoak izan daitezkeela uste dute ere. Baita ere nahiko adierazgarria iruditzen zait kopuru handi batentzako Gorputz Hezkuntza gehien gustuko duten ikasgaia izan dela. Honek ematen du bide hausnarketa sakon bat egiteko.

Hezkuntza eleanizetan eta Gorputz Hezkuntzan hasi berria bazara eta esploratzeko aukerak eta zalantzak badituzu, abentura polit baten hasiera ekiten ari diozu. Espero lan honek bidai horren aurkikuntza eta auto-aurkikuntzaren hasiera horri laguntzeko bide ematea. Arlo honetan esperientzia baduzu saiatu naiz zenbait ideia ematen edo ikuspuntu berriak pizten. Nahiz eta lan honek erabilgarria iruditu zure ikasleak izango dira jakintza berrien iturri garrantzitsuena. Aztertu, entzun eta ikasi haiengandik. Zure jakintzak erabat aberastuta islatuko dira zure ikasleekin lan egiten duzunean.

Hezkuntzara bideratutako bidai honetan hoberena opa dizut: nabigazioa ez da beti erreza izango, baina, zalantza barik bidai interesgarria izango dela. Bidai luzeenak ere pausu bakar batez hasten dira.

8. Bibliografía

- Barquin, A. (2009). Etorकिन seme-alabak eskolan. Zer aldatzen ari da?. *Hik Hasi*, 143, 29-32.
- Besalú, X. eta Vila, I. (2007). *La buena educación*. Madrid: Catarata.
- Besalú, X. eta Vila, I. (2007). *La buena educación. Libertad e igualdad en la escuela del siglo XXI*. Madrid: Catarata.
- Bilbao, X. (1998). *Hezkuntza elebiduna*. Zenbait oinarri. Bilbo: EHU.
- Bruner, J.S. (1983). *Child's Talk*. New York: Norton. Trad. Cast. *El habla del niño*. Madrid: Paidós, 1985.
- Bustingorry, S., Tapia, I., eta Mansilla, F. (2018). Investigación cualitativa en educación. Hacia la generación de teoría a través del proceso analítico. *Estudios pedagogicos*, 32(1), 119-133.
- Coelho, E. (2016). *Eskola Kulturantzunetan irakastea eta ikastea*. Bilbo: UPVH/EHU.
- Coelho, E; Oller, J. & J. M. Serra. (2013). *Lenguaje y aprendizaje en el aula multilingüe. Un enfoque comunicativo*. Barcelona: Horsori-ICE.
- Costa, A.M., Almendro, C., eta Alerta, R. (2006). El incidente crítico, aprendiendo de nuestros errores. *Familia medikuntza irakasleen tribuna*, 8, 4, 10-17.
- Cummins, J. (1979). Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children. *Review of Educational Research*, 49, 222-251.
- Davids, K., Button, C., Araújo, D., Renshaw, I. eta Hristovski, R. (2006). Movement models from sports provide representative task constraints for studying adaptive behavior in human movement systems. *Adaptive Behavior*, 14(1), 73-95.
- Devís, J. eta Peiró, C. (1993). La actividad física y la promoción de la salud en niños/as y jóvenes: la escuela y la educación física. *Revista de psicología del deporte*, 2(2), 0071-86.
- Gonzalez, J. M. (2003) *Jarduera Fisikoa, Kirola eta Bizitza: Ariketa Fisikoaren eta kirolaren onurak, kalteak eta zentzua*. Lasarte-Oria. Oreki Fundazioa.
- Grupo Incorpora (2009). Una perspectiva escolar sobre la educación física: buscando procesos y entornos enriquecedores. In L. Martínez y R. Gómez (Koord.) *La educación*

física y el deporte en la edad escolar: el giro reflexivo a la enseñanza, (137-168 or.). Buenos Aires: Miño Dávila.

Hellison, D. (1985). *Goals strategies for teaching physical education*, Human Kinetics, Champaign, Illinois.

Hernandez, J. L. (2004). Teoría curricular y didáctica de la educación física. In A. Fraile (Koord.), *Didáctica de la educación física desde una perspectiva crítica y transversal* (29-60or.). Madrid: Biblioteca nueva.

Kirk, D. (2008). Los futuros de la Educación Física: la importancia de la cultura física y de la «idea de la idea» de Educación Física. *Actas V Congreso Asociación Española de Ciencias del Deporte*. León: Universidad de León. (CD-R).

Krashen, S. (1985). *The Input Hypothesis: Issues and Implications*. Harlow: Longman.

Larraz, A. (2004). Los dominios de acción motriz como base de los diseños curriculares en educación física: el caso de la Comunidad de Aragón en educación primaria. In L. F. L. P. (Ed.), *La ciencia de la acción motriz* (203- 226 or.). Lleida: Universitat de Lleida. Servei de Publicacions.

Lambert, W. E. (1974). Culture and language as factors in learning and education. In A. F. Aboud eta R.D. Meade (arg.) *Culture Factors in Learning*. Bellingham: Western Washington State College.

Larraz, A. (2008). Valores y dominios de acción motriz en la programación de educación física para la educación primaria. Seminario internacional de praxiología motriz.

Larraz, A. (2009). ¿Qué aprendizajes de educación física debería tener el alumnado al finalizar sexto curso de primaria?. *Tándem. Didáctica de la Educación Física*, 29, 45-63.

Lasagabaster, D. eta Sierra, J.M. (Koods.) (2005). *Multilingüismo, competencia lingüística y nuevas tecnologías*. Bartzelona: ICE-Horsori

López, V., Pérez, D., Manrique, J.C., eta Monjas, R. (2016). Los retos de la Educación Física en el siglo XXI. *Retos*, 29, 182-187.

Márquez, S. (1995). Beneficios psicológicos de la actividad física. *Revista de psicología general y aplicada*, 48(1), 185-206.

Márquez, R., Rodríguez, J. eta De Abajo, S. (2006). Sedentarismo y salud: efectos beneficiosos de la actividad física. *Apunts, Educación Física y Deportes*, 83.

Moreno, J. A.; Rodríguez, P. L. eta Gutiérrez, M. (2003). Intereses y actitudes hacia la Educación Física. *Revista Española de Educación Física*, XI, 2, 14-28.

Nussbaum, L. (2003). Immigration et dynamiques polyglossiques en Catalogne. In L. Mondada eta S. Pekarek-Doehler, (arg.) *Plurilinguisme- Mehrsprachigkeit - Plurilingualism Enjeux identitaires, socio-culturels et éducatifs. Festschrift pour Georges Lüdi*. Francke: Tübingen, 15-27 orr.

Organización mundial de la salud (2010). *Recomendaciones mundiales sobre actividad física para la salud*. Ginebra: Suiza.

Parlebas, P. (1999). *Jeux, sports et sociétés* (2 ed.). Paris: INSEP.

Ramírez, W., Vinaccia, S., & Gustavo, R. S. (2004). El impacto de la actividad física y el deporte sobre la salud, la cognición, la socialización y el rendimiento académico: una revisión teórica. *Revista de estudios sociales*, (18), 67-75.

Rodríguez, A., De la Cruz, E., Feu, S., Martínez, R. (2011) Sedentarismo, obesidad y salud mental en la población española de 4 a 15 años de edad. *Revista Española de Salud Pública*, 85, 4, 373-382 or. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, Espainia.

Ruiz Bikandi, U. (ed.). (2009) *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: EHU-UPV.

Saguillo, M. (2005). La lección de educación física en educación primaria: el fruto de un proceso de formación permanente. In N. Bores (Koord.), *La lección de educación física en el tratamiento pedagógico de lo corporal*. 41-65 or. Barcelona: INDE.

Sánchez, M., Ruiz, B. (1990). La educación para la salud en el curriculum escolar. *Gredos*, 123-128 or.

Sánchez-Oliva, D., Leo, F. M., Amado, D., González-Ponce, I., eta García-Calvo, T. (2012). Desarrollo de un Cuestionario para valorar la Motivación en Educación Física. *Revista Iberoamericana de Psicología del Ejercicio y el Deporte*, 7, 2, 227-250.

Serra, J., eta Garcia, J. (2017). La problemática táctica, clave en el diseño representativo de tareas desde el enfoque de la pedagogía no lineal aplicada al deporte. *Retos*, 32, 278-280.

Tinning, R. (1992). La educación física la escuela y sus profesores. Valencia: Universidad de Valencia.

Tinning, R. (1996). Discursos que orientan el campo del movimiento humano y el problema de la formación del profesorado. *Revista de Educación*, 311, 123-134

Tough, J. (1989). *Lenguaje, conversación y educación*. Visor. Madrid.

Tyler, R. (1949). *Basic principles of curriculum and instruction*, University of Chicago Press, Chicago.

Gibbons, P. (1993). *Learning to learn in a Second Language*. Portsmouth, NH: Heinemann.

Vila, I. (2014). Algunas reflexiones sobre la educación bilingüe. Rizoma freireano, 16. Instituto Paulo Freire de España.

Zagalaz, M.S., Molero, D., eta Cachon, J.(2012). Diseño de un cuestionario para medir la formación bilingüe del profesorado de Educación Física (FBPEF). *SportTK*, 1(1), 7-12.

9. Eranskinak

1. Eranskina. Inkesta. Gorputz hezkuntza eta hezkuntza elebiduna eskolan

Galdetegi honen bitartez gorputz hezkuntzan zer nolako oroitzenak gordetzen dituzuen neurtu nahi dugu. Era berean jakin nahi dugu zer uste duzue gorputz hezkuntzaren bitartez beste bigarren hizkuntza (euskara, gaztelera, ingelesa, katalana...) ikasteko aukera dagoen.

Hezkuntzarekin erlazionatutako ikasketak dituzu: *Bai /Ez*

Adina: ...

Herrialdea: ...

Gorputz hezkuntzako jarrerak neurtzeko galdetegia (CAEF)

(9 galdera)

1: Desados 2: Ados 3: Nahiko ados 4: Erabat ados

Gorputz hezkuntza gehien gustatu zaidan ikasgaia izan da

Gorputz hezkuntzan jaso nituen ezagutzak beharrezkoak eta garrantzitsuak dira

Gorputz hezkuntzako irakaslearekin ikastetxean zeuden gainontzeko irakasleekin baino harreman hobea goa neukan

Gorputz hezkuntza aspergarria da

Gorputz hezkuntzako irakaslea bere saioak dibertigarriak egiten zituen

Niretzako gorputz hezkuntza oso garrantzitsua da

Irakaslea proposatzen zituen jarduerak egiteko zailtasunak nituen

Gorputz hezkuntzan ez da ezer ikasten

Gorputz hezkuntza da garrantzi gutxien daukan ikasgaia

Gorputz hezkuntzako motibazioa ebaluatzeko galdetegia (CMEF)

(4 galdera)

1: erabat desados 2: desados 3: neutro 4: ados 5: erabat ados

Gorputz hezkuntzako saioetan ikasi ditudan gaitasunak bizitzako beste arlo batzuetan aplika ditzaket

Gorputz hezkuntza pertsona moduan hezteko onura handiak ditu

Gorputz hezkuntzaren bitartez lortu ahal ditudan gaitasunak baliogarriak izan daitezke etorkizunerako

Ikasgai honengatik jaso ditudan ezagutzak eta gaitasunak garrantzitsuak direla ustedut

Gorputz hezkuntzako irakaslegoa hezkuntza elebidunean duten formakuntza neurtzeko galdetegia (FBPEF)

(8 galdera)

1: Oso gutxi 2: Gutxi 3: Zerbait 4: Nahikotxo 5: Asko

Ama hizkuntza ez den hizkuntz bat irakasteko gorputz hezkuntzako saioetan landu daitekeela uste duzu? Helburuak, edukiak eta metodologiari dagokionez.

Zenbateko garrantzia ematen diozu hezkuntza elebidunari lehen hezkuntzan?

Hezkuntza elebidunarekin ikaslearen euskara maila hobetu daitekeela uste duzu?

Zer motatako garrantzia ematen diozu gorputz hezkuntzako ikasgaiari beste hizkuntza bat ikasterako orduan?

Hizkuntza ikasterako orduan gorputz hezkuntza beste ikasgai batzuekin konparatuz abantaila gehiago dituela uste duzu?

Ikaslearen motibazioa handiagoa izan daiteke gorputz hezkuntzaren bitartez ama hizkuntza ez den beste hizkuntz bat ikasterako

Beste ikasgaietako irakasleak eta gorputz hezkuntzako irakasleak hezkuntza elebidunean irakasteko berdin prestatuta daudela uste duzu?

Zure ustez unibertsitateko gorputz hezkuntzako ikasleei praktikaren bitartez hizkuntza irakasterako prestatzen dituztela?

Encuesta. Educación física y enseñanza bilingüe en la escuela

A través de este cuestionario buscamos medir que recuerdos guardáis sobre la experiencia vivida en educación física y a su vez queremos saber si cree que a través de la educación física se puede aprender otro idioma (euskera, castellano, inglés, catalán...) que no sea la lengua materna.

¿Tienes estudios relacionados con educación? *Si / No*

Edad: ...

Localidad: ...

Cuestionario de Actitudes hacia la Educación Física (CAEF)

(9 preguntas)

1: En desacuerdo 2: Algo de acuerdo 3: Bastante de acuerdo 4: Totalmente de acuerdo

La educación física es la asignatura que más gusta

Los conocimientos que adquiero en educación física son necesarios e importantes

Con el profesor de educación física me llevo mejor que con el resto de profesores

La educación física es aburrida

El profesor de educación física intenta que sus clases sean divertidas

Para mí es muy importante la educación física

Me costaba realizar los ejercicios que propone mi profesor de educación física

En educación física no se aprende

La educación física es la asignatura menos importante del curso

Cuestionario de Motivación en las Clases de Educación Física (CMEF)

(4 preguntas)

1: Totalmente en desacuerdo 2: algo en desacuerdo 3: neutro 4: algo de acuerdo 5: totalmente de acuerdo

En las clases de educación física puedo aprender habilidades que podría usar en otras áreas de mi vida

Valoro los beneficios que puede tener esta asignatura para desarrollarme como persona

La educación física es una de la mejores formas de conseguir capacidades útiles para mi futuro

Esta asignatura aporta conocimiento y habilidades que considero importantes

Diseño de un cuestionario para medir la formación bilingüe del profesorado de educación física (FBPEF)

(8 preguntas)

1: Muy poco 2: poco 3: algo 4: bastante 5: mucho

En qué medida opina que se puede relacionar la enseñanza del idioma extranjero con la de Educación Física, en cuanto a los objetivos, contenido y metodología se refiere

¿Qué importancia le da a la enseñanza bilingüe en Primaria?

¿Piensa que con la educación bilingüe se puede mejorar el nivel de euskera del alumnado?

¿Qué importancia le da a la Educación Física para que se de el aprendizaje de una nueva lengua?

¿Cree que la Educación Física tiene ventajas con respecto a otras asignaturas para que se de el aprendizaje del idioma?

¿Piensa que el alumnado adquirirá mayor motivación a la hora del aprendizaje del idioma extranjero (ejemplo: euskera) si se trabaja también en Educación Física?

¿Considera igual de capacitados a los docentes de otras asignaturas que a los docentes de Educación Física para impartir enseñanza bilingüe?

¿Piensa que desde la Universidad se está formando al alumnado de Educación Física para la puesta en práctica de una enseñanza lingüística?

2. Eranskina. Ikasturte guztien Gorputz Hezkuntzako programazioa.

	1. Domeinua Psikomotorra	2. Domeinua Aurkaritza	3. Domeinua Lankidetzta	4. Domeinua Lankidetzta Aurkaritza	5. Domeinua Natur inguruneko jarduerak	6. Domeinua Gorputz adierazpena eta komunikazioa
1. Maila	Ibilbideak Korrika	Aurkaritzako jolasak	Jolas kooperatiboak	Taldekako joko/jolasak	Pista jolasak Natur ingurutik ibili	Antzerkia Kanta jolasak
2. Maila	Ibilbideak Korrika Patinajea	Karate	Jolas kooperatiboak	Joko/jolas tradizionalak	Mendi martxa Orientazioa	Gorputz eskema Mimika
3. Maila	Igeriketa I Patinajea	Aurkaritzako jolasak	Itsuaeren dinamika Jolas kooperatiboak	Saskibaloia	Mendi martxa Orientazioa	Gorputz eskema Mimika
4. Maila	Igeriketa II Erlaxazioa	Esku pilota	Acrosport	Futbola	Eskalada Mendi martxa	Itzal txinatarrak Aerobic
5. Maila	Atlestimoa I	Badminton	Lakidetzta erronkak	Rugby	Bizikleta Ibilbidea Orientazioa	Argi beltzak Euskal dantzak
6. Maila	Atletismoa II Erlaxazioa	Tenisa	Ikas Giroak Acrosport	Boleibol	Surf Mendi martxa Orientazioa	Antzerkia Dramatizazioa

3. Eranskina. Lehen Hezkuntzako 4. mailako urteko programazioa.

	Iraila-Urria	Azaroa-Abendua	Urtarrila-Otsaila	Martxoa-Apirila	Maiatza-Ekaina
1. Domeinua	Igeriketa	Erlaxazioa			
2. Domeinua			Esku pilota		
3. Domeinua		Acrosport			
4. Domeinua				Futbola	
5. Domeinua	Eskalada				Mendi martxa
6. Domeinua			Itzal txinatarrak		Aerobic